

MARKESAREN ALABA

Etxaide'tar Jon

(Drama iru ekitalditan)

Gipuzkoa'ko jende lau ta xea ain biziro ta egoki margoztu digun,
Artetxe'tar Joxe ene adiskide onari.
EGILLEAK

LENENGO EKITALDIA

*Agertokia Mutriku'ko kai zaharra, antziña arrai salketa egiten zuten
arkupedun etxe zaharraren albo. Santa Kruz bezpera da,
Mutrikuarren jaietako bat, beste iru ere egiten baitituzte: San
Pedro, Madalenak eta Izara Santi bidezkundez, Maiatzaren iruan.
Arrantzale andre batzuk, (iru aurrean, JOXEPA, INAXI ta LUIXA eta
bestetzuk atzerago itzik egiteke ezar ditezke, bearrezkoa ez
izanarren) «trañak» (eskuz egindako sareak) konpontzen diardute
lurrean exerita. Kaian, bela-txalopa eta potiñak ikus bitez.
Gertagaraia: 1885'gn urtea gutxi gora-bera.*

BIGARREN JARDUNALDIA

LENGUAK eta MUTIKOAK

*(Erriko mutil koskor aldra bat sar bedi, ojuka. ta karraxika itxaso
aldetik (antzezlekuaren ezker aldetik). Murumendi'ko kaxkotik
daboz kaleruak (kala-txalopak) gaiñean dirala iragarritz.)*

MUTIKOAK: Bela txalopa aundiak! Bela txalopa aundiak!

ANDREAK: (Aztoratuta.) Ageri al-dituk? Nun dira? Urruti ala urrian?

MUTIKOAK: Santabata'ko parian dira onezkero, guk Murumendi'ko kaxkotik aruntxaxeago sormatu ditugu-ta.

JOXEPA: Bertan dira baiña!

INAXI: goazen, goazen, ongi-etorria egitera!

LUIXA: Segi, segi, norbait daukazuenok, baiñan, laister ahaztuko zaitute tabernako arduaren truk. Gizonak! A zer aparejuak! Baiñan, nik ere joan egin bearko, ia mutil zaharren batek kasorik egiten didan... (Bijuaz emakumeak itxasoruntz eta mutikoak legorreruntz berriz ere ojuka ta zarataka.)

MUTIKOAK: Bela txalopa aundiak! Bela txalopa aundiak! (Suntsi bitez.)

IRUGARREN JARDUNALDIA

PERU JAUNA eta KALAMAX

*(PERU JAUNA, berrogeitabost urte inguruko gizaseme itxurazkoa
itxaso aldetik agertu bedi arrantzako kañaberarekin eta otarra bete
arraiñez. KALAMAX, ogeitamar-ogeitamabost urte inguruko gazte
arlotea kontrako aldetik, au da, erri aldetik sar bedi. Urian,
ardandegi baten jabe da eta lana eztu sobera maite. Neskazale*

*larregia izana eta tximeletak bezala lorez-lore ibilli zalea iñun
kokatu nai-ezta.)*

PERU JAUNA: Eup, Kalamax!

KALAMAX: Itxaso aldetik, Peru jauna?

PERU JAUNA: Bai, eta eu legorretik... itxasorantza edo itxasokoak etortzen ikustera?

KALAMAX: Ez bat eta ez beste, Peru jauna. Itxasoak ez nau erakartzen eta itxasokoen ardura aundirik eztaukat.

PERU JAUNA: Ez ukek orrelakorik esan bear, Kalamax. Ez al-dakik arrantzialien lepotik bizi aizena? Aiek arraiñik ekartzen ba'ditek, ire ardoa barra-barra nori saldu izanen duk, baiñan, «sekantza» baldin ba'da, nori saldu bear diok ire ur zikiña?

KALAMAX: Poliki ortxe, Peru jauna. Nire ardoa jatorra da gero, eztu iñolako kristau kutsurik.

PERU JAUNA: Kristau kutsurik ez? Jentilla ote duk apika?

KALAMAX: Ardoak jatorra izateko jentilla, judua edo alako zerbait bear du. «Bataiatu» bagea beñepein.

PERU JAUNA: Bapo Kalamax! Nik bildutako arraiñakin eta ik jarritako ardo jentil orrekin gaur arratsean lagunarteko aparti koxkor bat egingo al-diagu?

KALAMAX: Bai gizona! Zeintzuk bilduko gera?

PERU JAUNA: Keleo zaharra, nirekin izana baita arrantzan. Potiña atrakatzen gelditu duk eta laister da emen. Keleo eta bere seme Joxe Migel itxasotik gaur etortzen ba'dituk, etorriko al-dira. Mediki jaunari ere esango ziokat. Pertxal ere gaur zetorrek itxasotik eta ba-dakik tartekoa dena. Albaiteruak ere ezтик olakotan uts egiten...

KALAMAX: Santa Kruz bezpera ospatzeko arrain utsa urritxo egiten da eta okela ekarri bearko dugu.

PERU JAUNA: Okela ta gaiñerakoak. Eu antolatzaile, Kalamax.

KALAMAX: Utzi niregain; eginen dugu zerbait.

PERU JAUNA: Arrain saskia jaso zak erorrek eta aukera egokienak. (*Eman bezaio.*)

KALAMAX: (*Begiratzuz.*) Ba-dago emen arraiñik ugari: txatxarru, buztanbeltz, berdel txistu, luxana, kraba, pantxo... (*Eskuartearen erabil bitza esan ala.*)

PERU JAUNA: Nun nai ere ugaritasuna ziokan gaur. Erten orduko, kala-txoriak erakutsi zigutek txatxarru bitsa eta sail guzia sardan atxeman diagu. Ordu pare batean kazean arita otarra bete diagu eta sobera genikan ezkeroz kaiera ekin diagu. Niretzat jolas ederragorik etzegok arrantzan jardutea baiño.

KALAMAX: Nik baiño arrantza ohea egin duzute, alajañetan!

PERU JAUNA: Ago lo ta jango duk me.

KALAMAX: Ondotxo erne nabil ba aspaldian, Peru jauna, baiñan, txoriak itzul egin dit.

PERU JAUNA: Neska koskorren bat ote duk orain ere begiz jota?

KALAMAX: Bai, eta emen zela esan didate, baiñan, nunbait, etzen egia.

PERU JAUNA: Emen, batto egona duk eta eder askoa. Beraren usaiñean ba'abil...

KALAMAX: Pertxal'en alaba?

PERU JAUNA: Inaxi.

KALAMAX: Berbera.

PERU JAUNA: Aspertu al-aiz Buruzuri'ren alabarekin?

KALAMAX: Ura, jolaserako poliki zegon, baiñan, ez nun beraganako egiazko maitasunik sentitzen. (*Osc benatsu.*) Maitasunak sendoa eta iraunkorra bear du eta arenganako maitasuna azalekoa, itxurazkoa besterik etzan.

PERU JAUNA: Eta Inaxi'renganako benetakoa al-duk?

KALAMAX: Bene-benetakoa. Ezagutu orduko igarri nion uraxe zela Jaungoikoak betidanik niretzat aukeratutako neskatxa. Joan den igandean zortzi Deba'n berarekin dantzan egin nun eta arrezkeroz nire biotzak eztu atsedenenik, eta eztu izango bere jabe egin artean.

PERU JAUNA: (*Parrari ezin eutsika.*) Naiko lana izango duk ba «ezitzen».

KALAMAX: Zer ba?

PERU JAUNA: Aitzea dutanez Inaxi Jose Migel'ez maitemindurik dagolako.

KALAMAX: Ezta posible!

PERU JAUNA: Ezta izango, baiñan ala duk.

KALAMAX: Baiñan, burutik egin al-zaio neska orri? Joxe Migel'ek zer eman dezaioke nire aldean? Lana franko! Nik berriz, dirua eta patxadazko bizimodua. Erriko tabernarik ederrenaren Jaun da jabe naiz eta nire aita zenak Ameriketatik ekarritako ontzako urre ederren jabe ere bai.

PERU JAUNA: Eta bereganako daukaken maitasun sutsu orrek iraungo al-dik ezkontzako eguneraiño? Gaur batekin eta biar bestearekin ba'abil, zer konfiantza euki dezake neska batek ire itzetan?

KALAMAX: Oraingoan egitan nabillela, Peru jauna.

PERU JAUNA: Orixe esaten ukan eta orain bezin bero enbillen Buruzuri'ren alabarekin asi intzanean. Eta gero, zer da? Urrengo neska ezagutu orduko suzko maitasun ura itzali, suntsitu, deuseztu, keia eguratsean galdu oi den gixa berberan. Ire begira dagon neskatxak jai zeukak, Kalamax!

KALAMAX: Peru jauna, orain sentitzen dutan maitasun au eztut beifñere sentitu...

PERU JAUNA: Eztiat ukatzen. Baiñan, gaur sentitzen dukana, biar eta etzi ere sentitu egin bear duk eta ortarako eztuk balio, Kalamax,.. Urrengo dantzaldian, Deba'n ezpa'da Ondarru'n, begi beltxaranen batek zoratuko dik burua eta... agur, biotzeko Inaxi!

KALAMAX: (*Parre antzean.*) Ondarrutarrakin nork dauka segurantzia, Peru jauna? Gizonik santuena ere galduko lukete. Ain zuzen ere, orain urtebete batek larde jario utzi niñun. Berriz ikusiko ba'nu...

PERU JAUNA: Ez ago alproja txarra i, Kalamax.

KALAMAX: (*Asperenka.*) Alprojak ere bizi egin bear, gaiñerakoak bezala...

LAUGARREN JARDUNALDIA

Lengoak eta ANTTON (Keleo'ren aita)

PERU JAUNA: Orra or Antton zaharra bere kañabera ta guzi.

KALAMAX: (*ANTTON'j, sartzean.*) Ori da umoria, Antton, zure urtiakin.

ANTTON: Itxasoan jaio dena, itxasoak azi ta bizi dik.

KALAMAX: Bai, neu tabernak bezala. Bakoitzak bere gustuak izan oi ditu.

ANTTON: Gustuak eta estuasunak, Kalamax. Nik, itxasoan igaro dizkiat makiñabat eta aitzea dutanez ik ere pasatu duk bart ire estuasuntxo... arandegi atarian.

KALAMAX: Ba, ba, ba. Itxurak egin.

ANTTON: Itxurak ez, Kalamax. Gaur, mediku jauna nirekin egona duk eta ark kontatu zidak zeatz-meatz.

PERU JAUNA: Zer baiña? Zer duk alako ori?

ANTTON: Zera... Atzo arratsean komediantek ziran erriko plazan, Kalamax'en arandegi aurrean ain zuzen ere, eta delako komediantek batek makiñabat katramil egiten zitun'bere tresnakin. Alako batean, arrautz bat atera du eta abotik sartu ta zeratik... «popa»'tik atera asi da. Orduan, Kalamax'ek... Tira, baiña ontaz aurrera berak obeki kontatuko ziguk.

KALAMAX: «Nik ere ori egin baietz», esan nion eta gero plazako jendeari: «Ekarri errian den arrautzik aundiena eta aboko zulutik sartuta atzekotik atera baietz nik ere.» Ekarri zidaten, gezurrik esateke, kalabaza baiño aundiagoko arrautza eta orduntxe bai damutu nintzala nire ollarkeriaz. Larritasun artan izerdi tantoak ere atera zitzaizkidan. Baiñan, jende guzia begira nun eta zerbait egin bear lotsagarri geldituko ezpa'hintzan. Begiak itxi nitun eta geiago pentsatu gabe, zapla! sartu nun oso-osorik eztarrian barrena.

ANTTON: Zintzurreko zulutik sartu bai, baiñan irentsi ezin... Zer uste ukan? Arrautza irestea ire tabernako ardua zanga-zanga artzea zela? Ai, gizajoa!

KALAMAX: Gizonak olloak baiño aulagoak ote gera ba, Antton? Olloaren ip... tzulutik ain aisa lerratzen den gauzak nire eztarriko zuloan planto egin? Alakorik Kalamax'i beste iñori ezin gerta.

PERU JAUNA: Astolapikoa alakoa!

KALAMAX: Bai, ni astolapiko, baiñan nik eman nion komedianteari lezioa.

PERU JAUNA: Zer lezio?

KALAMAX: Zagoz pixkabat, Peru jauna... Nun ari giñan? A, bai! Egundoko estuasunean arkitu nintzan nire arrautzarekin, ez aurrera, ez atzera. Minutu bat geiago orrela eta nireak egin zun. Bearrik, Bixente mediku jauna nire alboan suertatu zen. Itobearrean somatu niñunean, eman zidan nirebiziko bizkarrekoa eta arrautza abotik bala bailitzan aterata, aurreko paretan josita gelditu zen. Orduan, ollar-ollar eginda esan nion komedianteari: «I, komediate, ezetz ik onelako azañik egin.» Eta egin ere, etzun egin, inguruko guztiak testigu. Ez ote lezio polita, Peru jauna?

PERU JAUNA: Lezioa ire ustean polita duk, Kalamax, baiñan. nik, ba'ezpada ere, eman baiño artu naiago nitek.

KALAMAX: Nik ere bai une batean, baiñan, geroko puztutasunak ez al du deus merezi?

ANTTON: (*Kai aldera begira.*) Orra, nire seme ta billobak kaieratu. Ziur naiz, berak dira. Txalopa ere ezagun dut bertatik.

PERU JAUNA: Gozemakio ongi etorria egitera.

KALAMAX: Ni, arrain otarrarekin etxera joango naiz.

ANTTON: Goazen, Pello.

PERU JAUNA: Bai, goazemazu lenbailen, Antton.

KALAMAX: Arratsarte, beraz.

PERU JAUNA - ANTON: Bai, agur.

(*Bijoaz auek itxaso aldera eta KALAMAX urira.*)

BOSGARREN JARDUNALDIA

AGATA bakarrik

AGATA: (*Errialdetik sartu bedi. Arnas estua agertu besa eta isketan astean eskuak biotzera eramán bitza.*) Auxe da arnas estua! Korrika etorri naiz kalez-kale eta biotz ontan alakoxeko estualdi bat nabaitu dut. Sekula ez nun izan alakorik. Zer ote da? Seguru aski deus ez. Joxe Migel ikusteko leiak eragindako biotz-zirrara, noski. (*Txatopetara begira.*) Baiñan, auxen da jendiaren emana! Nire osaba Pello ere ortxen dijoa Antton zaharrarekin. Kalamax'ekin berriz ia-ia oztopo egin dut. Bearrik, ez nau ikusi, ni kale kantoi batetik nentorrela bera bestetik sartu baita. Obe... Gaiñerakoan, lore batzuk bota gabe nork ixildu ori? Eta ainbestean amor eman ezker, kontent. Loreai abegi ona egin ezker aguro asten baita likits ori ikutuka ta zirrika. Nirekin elitzake ortaraiño ausartuko, baiñan ba-dakit nola ibiltzen den erriko neskatxik geienakin. Eta orri maitasuna esaten dio! Zelako maitasuna ote da norbere gozapena beste iturbururik eztaukana? Zalekeri ta maitakeritan murgilduta bizi den gizonak, ba'ote daki maitasunaren neurri eta elburu zer den? Baiñan, ez dezagun geronen urkoa juzga, geu ere Jaungoikoa'k juzga ez gaitzan. Biotza ojuka ari zait Joxe Migel ikusteko leiaz eta bidebatez zer bildurra arengana urbiltzeko! Jendearen bixtan ezin izketatu naiz berarekin, ezin erakuts nezake beraganako dutan maitasun sutsua. Ni, jauregi aberats batean jaio naiz eta bera arrantzale etxe txiro batean. Orra gure zorigaitza! Izan ere, zer eskubide dute gizarteko lege eta oitura itxuratiak gutarteko maitasun zindo au urratzeko? Zergatik izan bear dugu Joxe Migel eta biok gizalege zital oien mirabe? Ez! Ez gera izanen! Maitasunaren indarrak urratuko ditu aundikien gizarteak ernarazi ta sustraitu ditun bizilege toleskorrak. Eztut amor emango! Etxetik jaurtitzen ba'naute, jaurti nazatela! Izan ere, nire biotzak bizi pozik ba'ote duke Berriatu-Torre'ko jauregian sedazko maindire ta jazkiaz inguraturik, baiñan maitasunez antzu ba'naiz? Ez! Obe dut milla bider Joxe Migel'ekin landerki bizi, baiñan maitasun aundi baten jabe. Ez dezadan, ordea, burua sobera berotu eta egin dezadan modu Joxe Migel'ekin nolabait egoteko. Eztakit ongi ala gaizki egin dutan kaiera urbiltzen, baiñan, «Bela txalopa aundiak» oju egiten entzun

dietenean mutikoai, erten naiz etxetik salto batean, zer egiten nun ere pentsatu bage eta orain nire maiteagandik ain urbil naizelarik, eztakit zer erabaki artu. Aitortzen dut oneraiño etortzea zentzu-gabekeri bat izan dela, baiñan maitasunez kiskaltzen dagon biotza ezta pentsatzeko jaio. Eta, gaiñera, bi illabete luzeetan itxasoko arriskutan ibilli den maiteari ongi-etorria egitera ezpa'natorkio, nun da beraganako maitetasuna? Biotzak agindutakoa egin dut soilki eta orain buruak lagunduko al-dit zuhur jokatzan! (*Lagunabarrari begira.*) Baiñan, zer dakust? Jendea onotzaka asi da. Ezkuta nadin atebarru ortan, ez nazaten somatu...

(*Ezkuta bedi.*)

SEIGARREN AGERRALDIA

Itxasotik etorri diran arrantzaleak, euren andre ta umeak

(Zarata bizian sartu bitez danak. Itxaso aldetik uri aldera emeki-emeki igaro bitez beren laztan eta kuttunai maitasunezko itzak esanaz. Lagunabarraren tartean PERTXAL eta JOXEPA igaro bitez eta ondar aldera JOXE MIGEL. Arrantzaleok ikusmenaren edergarri eta kutsu emangarri, eraman bezate arraiki edo arrontza tresnaren bat. Naiz egalabur, arrain otar, arraun, pertxal edo zerbait orrelako. Arrantzale gazteak, neska-motikoen aita diranak, atabalez eta tronpetaz orniturik betoz eta umiak tresna auekin berenbiziko otsa te zalaparta atera bezate. Orok pozkor, alai eta zorion gaiñezka ager bitez ainbeste denboran arriskutan ibillitako gizonaik onik eta osasuntsu eldu diralako. Atunetatik euren aurrentzako erregaluz ornituta etortzea. (Gijon'en erosita) Mutriku'n antziñako oitura zen. Agerraldi au «estampa» baten tankeran eginbearrekoa da eta zuzendariak agertu bear du bere iaioasuna jende taldea zuzentzen eta bakoitzari bere egitekoa ematen. Itzak, egiteak eta mimika utsezko jardunak zuzendariaren gain gelditzen dira.)

ZAZPIGARREN JARDUNALDIA

AGATA eta JOXE MIGEL

AGATA: (*Lagunabarra uri-alderuntz ezkutatzean, AGATA atera bedi bere gordekeekutik.*) Ene! Orra non dijoan Joxe Migel erriruntz gizatalde osoarekin. (*Estu ta larri.*) Nola jakiñeraziko diot emen nagona iñork igartzeke? (*Bat batean.*) A, bai! Berak nirekin erabilli oi dun deia joko diot txistuz. (*Jo beza, «Inazio gure patroia aundia», birritan edo irutan.*)

JOXE MIGEL: (*Abagune baten ondoren agertuz.*) Agata. nire laztana!

(*Besarka beza matrail batean muin egiñaz.*)

AGATA: Joxe Migel, biotz ori! (*Alkar laztandurik egon bitez une bat.*)

JOXE MIGEL: Baiñan, nundik egin didazu dei, Agata?

AGATA: Atebarru ortan ezkutatuta nengon (*beatzarekin erakuts bezaio*) lagunabarra igarozai. Izan ere, ezin-egon bat sortu baitzait kaieko motikoak «bela txalopa aundiak!» ojuka asi diranean... eta besterik gabe etxetik itzul egin dut eta antxintxika oneraiño etorri, (*JOXE MIGEL'i begira onespen eske.*) Gaizki egin ote dut?

JOXE MIGEL: Eztakit zer esan... Batetik bildur-ikaretan jartzen gaitu iñork somatuko gaitun kezka... baiñan, bestetik, ez ote da obe bein jakin bear dena lenbailen jakitea?

AGATA: Nik ere orixe esango nuke eta kaletik etxera otsa zabaldu baiño, obeto litzake etxetik kalera zabaltzea.

JOXE MIGEL: Zer esan nai duzu orrekin?

AGATA: Orra ba. Orain arte bezala ezin ibili giñezkela, beti bildurrez, beti kezketan, maitasun zoragarri baten gozapena garrazten. San Pedroak arte orrela iraun genun, itxasora joateko baitziñan. baiñan, orain, gure artu-emanakin aurrera jarraitu bear ba'dugu...

JOXE MIGEL: (*Ebakiz.*) Il lenago, eten baiño, Agata.

AGATA: Bai, Joxe Migel, milla bider! Baiñan, gure kezka eta samintasun au biotzetatik erauzi dezagun, zer geran eta zer nai dugun lenbailen danai adi-eraztera dugu onen.

JOXE MIGEL: Norbaitez baliatu bear dugu ortarako. Apaiz jaunaz edo nik al-dakit!

AGATA: Ez, Joxe Migel, aspalditxoan pentsatuta daukat noren bitartez baliatu. Gure osaba Pello'z. Ori baiño laguntzalle oberik eztugu arkituko.

JOXE MIGEL: Izan ere! Ez al-zaitu gañera oso begiko?

AGATA: Bai, beti izan dugu osaba-illobok alkarrenganako maitasun aundia eta gaiñera, gure auzia leiatsu aldeztuko lukela uste dut. Bera ere arrantzalien eta jende apalen adiskide baita.

JOXE MIGEL: Eta noiz itz eginen diozu osabari?

AGATA: Aurreneko abagunean. Etxerakoan bakarka atxematen ba'dut, mintzatuko natzaio... Baiñan, barkatu, Joxe Migel, itxasoan nola ibilli zeran eztizut galdetu.

JOXE MIGEL: Ederki, Jaungoikoa'ri eskerrak. Etxerabidean gentozela, Castro'ko parian atxeman zigun galernaldiak apurtxo bat larritu giñun, baiñan artatik ere onik atera giñan. Arrantzaren kejarik eztezakegu. Gijon'en saldutako atun, egaluze ta egalaburrekin diru mordox egin dugu.

AGATA: Onera ere ekarriko zenduten ba atuna?

JOXE MIGEL: Azken bi egunetan arrantzatutakoa soilki, bi edo iru egunetik gorako atuna galdu egiten baita... Baiñan, adizu, Agata, arpegiko kolorea arrunt maxkarra duzu. Ondoezik egon alzera?

AGATA: Bai ote? Neronek ere eztakit zer gertatu zaidan. Zuregana antxintxika nentorrela, biotzean estualdi bat nabaitu dut eta arnasa urritu egin zait. Baiñan ez estutu, orain txit ongi nago, ziaro txuspertu naiz.

JOXE MIGEL: Besterik izan ezpa'da... Baiñan, berriz gertatzen ba'zaitzu sendagillearengana joan bear zenuke.

AGATA: Eztut uste ortara beartua arkituko naizenik... Entzun. Joxe Migel, zure aita etorri al-da? Ezpaitut ikusi emendik gora pasatu den gizadian.

JOXE MIGEL: Bai, baiñan, zure osabarekin gelditu da atun eta egalaburrak arakutzen eta itxasoko albisteak biltzen... Baiñan, ots! Norbait dator beko kaletik. Ezkuta gaitezen.

AGATA: Zoaz otxeruntz, Joxe Migel. Ni, lengo ezkaratzean ezkutatuko naiz.

JOXE MIGEL: Biar amaiketean Santabata'n alkartuko?

AGATA: Bai, eta gure deia jotzen ez ahaztu.

(JOXE MIGEL bijoa uriruntz eta AGATA ezkuta bedi lenagoko ezkaratzean.)

ZORTZIGARREN JARDUNALDIA

INAXI eta LUIXA

(Itxaso aldetik sar bitez kalakari, berritsukerian, alegia.)

LUIXA: (*Arrazoiaren puztutasunez.*) Zer esan diñat, zuntzun ori ? Orra, itxasotik etortzea ozta-ozta egin din Keleo'ren semeak eta dagoneko Agata eta biok alkarrekin egonak dituk.

INAXI: Ziur al-zera berak zirana?

LUIXA: Joxe Migel argi ta garbi ikusi diñat. Agata ez ain ongi, baiñan. Joxe Migel'ek neska batekin ziardunan izketan eta au Agata izan ezik zertan igesi joan? Zer pekatu ziñan gorde bearra?

INAXI: Arrazoi duzu, Luixa. Eztakit nora begira egon naizen Joxe Migel'ek egiten zizkidan purrustadak non zuten jatorri ez ikusteko. Nigandik alde egiteko alegin guziak egiten zitun mutillak, beste «zer» bat euki bear tartean. Oraintxen ba-dakit Joxe Migel'ek zergatik ez didan egiten jaramonik, ba-dakit nor dun maitagai eta norengatik esesten naun. Kiskil ori! Nork esan, neu baiño ezerezagoa den orri, orrelako aundi aizeak jo bear zionik? Norekin eta markesaren alabarekin! Ez nau arritzen! Itsasoan ibiltzea baiño gozoago baita andrearen lepotik jatea!

LUIXA: Ondo egin din: Iri markesen bat inguratu ezkerro, ez al-intzaken berarekin ezkonduko ire biotzeko kuttun guziak ostikoz jota?

INAXI: (*Suminduta.*) Nik ori egin? Luixa, ez nazan nire onetik atera...

LUIXA: Ire onetik atera ez, sartu nai diñat egin. Gogoan eduki zan: Agata alaba bakarra den. Ik ba'al-dakin, beraz, gabetik goizera Joxe Migel bezalako arrantzale gizajo bat markestuta eta dirututa arkitzea zer den? Ba-al-dakin ik, baserritan bakarrik zer ondasun duten Berriatu-Torreko markesak?

INAXI: Lotsa gutxirekin jaiotako gizona!

LUIXA: Orra ba, norekin nai unan ezkondu. Zuek ordea, gaztetxuak, mundurik eztaukazute eta okasiño ontan den bezelaxe ezagutu ezpa'unan, akatsik txikiena ez ionan ikusiko.

INAXI: Bai, ba'liteke orrela obeki izatea, neri begiak zabaltzearren, Jaungoikoa'k orrelako samintasuna bidaltzea... Baiñan, nire indarrak baiño, andiagoa da ezbear au. Ezin-etsiak ito bear nau, Luixa... (*Negar-zotiñak.*)

LUIXA: Ez aiz zentzutuko urteakin baizik, Inaxi. Apostu egingo niñan, oraintxen bertan, Agata'k zapuztuko ba'lu Joxe Migel eta onek iri ezkontzeko zerarik aipatu, delako Joxe Migel'ekin uztartu baietz, anka ta buruz gaiñera.

INAXI: Ezin uka... maitasuna itxua baita.

LUIXA: Itxua baiño obeto esango niñan... zoroa!

INAXI: Diruak eta aundinaiak eragin dio soilki urrats ori ematea Joxe Migel'i.... Baiñan alperrik ibilliko da iturburu oietan zoriona billatzen. Zoriona neuk emango nioke iñork ez bezalako, neuk lilluratuko nuke maitasunik mozkorgarrienaz, neuk, bai, eta ez Berriatu-Torre'ko erregintxo ziztriñak!

LUIXA: Nik etzekiñat euk mozkortuko unan maitasunez Keleo'ren semea, baiñan onek benetan mozkortu din markesaren alaba. Nik ezin neurtu dizkiñat pixu batean ire maitasuna eta Agata'rena Joxe Migel'enganako, baiñan, onena eztun iñolaz ere txantxetakoa, Oartzen al-aiz, ondotxo, neska onek bere bake, zorion eta etorkizunik goitarrena gal-zorian jartzen dula bere jokabidearekin? Euk, neurri ortaraiño jokatuko al-uken Joxe Migel'egatik?

INAXI: Oraindik asi besterik eztira egin. Ontaz aurrera ikusi bear maitasun orri ekaitzaldi guzien aurka eusten dion.

LUIXA: Ni ere zaletuta natxegon ikusteko. Komedia ala trajedia, zerbait piperduna beñepein ikustekoak gaitun aurki Mutriku'n.

INAXI: Bai, markesaren alabarena trajedian amaitzen baldin ba'da, makiñatxo batek negar eginen du, baiñan, nire trajediaz ezta iñor gogoratuko.

LUIXA: Zuntzun orrek, zergatik eztion jaramonik egiten Kalamax'i? Bera ere «sufritzen» ari dun ire maitasunarren eta euk, «erraigabe orrek», eztion errukirik. Gaiñera, Joxe Migel'en aldean aberatsa duk, ardandegi eta jatetxe baten jabea eta bere aita zanagandik jasota ba-dizkin makiñabat ontzako urre kutxa zaharren baten gordeak...

INAXI: Nik Kalamax'i jaramonik egin? Ederki eman ere! Naiago diñat nire burua urkabetik zintzilik jarri.

LUIXA: Ik eztakin jainko txikien berri. Urteak erakutsiko diton mundua zer dan, baiñan bildur naun niretzat bezala iretzat ere berandutxo ez ote den izango.

INAXI: Ezkontzeko aukerik izan zenun, beraz?

LUIXA: Izan eta joaten utzi... (*Goibel.*) Buru izketari baiño biotz izketari jaramon geiago egin nion zorigaitzez eta nire biotzak nai zukeanik etzen etorri. Dirutan aukera

onekoak izan nizkiñan, baiñan nire buru zozongillo onek etzekiñan diruaren balioa neurtzen. Orain, ordea, diruaren eza eta bakartasunaren mingotsa zertzuk diran ondotoxo ikusia natxeon. Artzan senarra, Inaxi, eta diruduna obe dirugabea baiño, senarrak zorionik ematen ezpa-din erorren aurrak emango ditena...

INAXI: Ezin, Luixa, ezin...! Nik ere zure gaztetako lepotik euki burua... Joxe Migel edo batez.

LUIXA: Orra ba, nik esan: bate gabe geldituko aiz.

INAXI: Ez, oraindik gaztea naun eta Joxe Migel'ek Agata bereganatzen ezpa'du, neuk irabaziko diñat niretzat.

LUIXA: (*Parrez.*) Besteak utzitakoa?

INAXI: Ezin bizi ninteke bera gabe.

LUIXA: Iñor gabe bizi bearko dun ba.

INAXI: Ene! Au samintasuna! Au mundu zitala!

LUIXA: Biotzaren samintasuna eta munduaren zitalkeria bear bestean ezagutzeko oraindik gaztetxo aiz. Ni bezala berrogeitamarretik gora irixten aizenean iñor alboratu gabe, bizi garratz onen berri jakingo dun zertxobait... (*Asperenka.*) Ez ote dun mutil zahar bat izanen bazterren batean nitzaz gogoratuko dena?

INAXI: Oraindik ez itxaropenik galdu, Luixa, urtetan aurrera xamartua egonarren andrie gordiña zagoz-ta. Ba-dira bazterretan mutil zaharrak zurekin pozik ezkonduko lirakenak...

LUIXA: Bai ote?

INAXI: Bai, orixe! Goñi-zahar, adibidez. Zer deritzazu?

LUIXA: Zurrutari emana eta jokalaria xamarra izanarren, pozik artuko nuke, besterik ezeean... Baiñan nork atera ura tabernazulotik?

INAXI: Ia ba, Luixa, zuk laguntzen ba'didazu Joxe Migel nereganatzen, nik ere lagun nezaizuke Goñi-zapar zuria izaten.

LUIXA: Benetan?

INAXI: Bai, Luixa, trankil egon, baiñan eztut uste zure Goñi-zahar «besteak utzitakoa» baiño ohea denik.

LUIXA: Nai denik eztago eta ahal dena...

INAXI: Ai nire Joxe Migel!

LUIXA: Ai, zozoa! Amaika aldiz damutuko zain Kalamax'i jaramonik ez egiña. Nik ere garai batean Xixilio'ri eskabide ainbat uko egin ezpa'nio...

INAXI: Zer?

LUIXA: Neu izango nintzakela bere zortzi ume ederren ama.

INAXI: Ori ezta gizon-egarria, Luixa, amatasun egarria baizik.

LUIXA: Luzeran, emakumeok eztugu beste egarririk gure sabeleko frutuarena baizik. Gizona bitarteko bekigu, ez elburu. Denbora lekuko, Inaxi. Ez dezazula esan, gaur nik bezala, iñorengandik izan zenitzakean umeak ikusita «Ai, nireak ba'lira!».

(*Bijoaz erri aldera.*)

BEDERATZIGARREN JARDUNALDIA

PERU JAUNA eta KELEO

(*Itxaso aldetik sor bitez.*)

PERU JAUNA: Beraz, atuna ondo saldu duzute Gijon'en?

KELEO: Bai, eztugu kejarik aurtengoan. Ugaritasunean kiluak iru txakur txiki egin ditu.

PERU JAUNA: Ausarkeria ezpa'da, esango al-didazu zenbat irabazi dun txalupako mutil bakoitzak atunaldi ontan?

KELEO: (*Egonaldi baten ondoren.*) Berrogei duro ortxe-antxe.

PERU JAUNA: Eta zenbat gizon ziñaten kaleru bakoitzean?

KELEO: Patroi edo lemazai, sota-patroi, tostarteko eta mutikoarekin zortzi.

PERU JAUNA: Bixigutan baiño gutxiago.

KELEO: Bai, bixigutan, eskoteko kalara lenbailen irixteko, ogei ibiltzen gera. Arraunari jo egin bear zaio bixigua bidean galduko ezpa'da.

PERU JAUNA: Eskoteraiño joaten al-zerate bixigutara?

KELEO: Barruko kalan arkitzen ezpa'da, araiño joan bear eta kostatik ogeitamalau millara dago eskoteko kala.

PERU JAUNA: Bai, ezta txantxetako ibillera.

KELEO: Ala're, xamurragoa da eskoteraiño ibillera, emendik Gijon'erakoa baiño.

PERU JAUNA: Zenbat egun bear dituzute Gijon'etik Mutriku'raiño?

KELEO: Aize onak tokatuta iru egunen egiten dugu. Baiñan aize aldrebesak jo ezkerro eta abantian joan bear, sarritan bezala, edo-ta atzoko gixan ekaitzak jota portu batean arribadan sartu bear izan ezkerro, orduan eztago denbora jakiñik...

PERU JAUNA: Enekin ezertxore, Keleo. Onerakoan larri ibilli al-zerate?

KELEO: Une batean larritxo, baiñan, alakuak sarri izan oi ditugu arrantzaleok... Castro'ko parean giñan bat-batean galernak jo zigunean. Bereala oju egin nien tostartekuai: «Arria belak, gizonak, aizea dakar-ta». Eta alaxe, belak erdiratuta sartu giñan Castro'ko kaian. Okerraldi au dala-ta iritxi gaituzu doi-doian Santa Kruzetako festetara. Bestela, atzo arratsean emen giñuzun.

PERU JAUNA: Beraz, aurtengo atunaldian masiari probetxu aski atera diozute.

KELEO: Baserritarrak bezala zomorrokerian ibilli gabe, baietz aitortu bear.

PERU JAUNA: (*Parrezka.*) Datorren urterako arto-malutak lejitano zuritzeko lain aterako al-zenduten eta arrantzaleak ainbestean... kontentua.

KELEO: Ez parrerik egin, Pello; arrantzalea baiño kontentagaitzagoa ba-da makiñabat bazterretan.

PERU JAUNA: Eta konpañian zeintzuk ziñaten, Keleo?

KELEO: Pertxal'en txalupa, Okon-txiki'rena, Aingira-Beltz'ena eta gurea. Alkarrekin ondo etortzen gera eta asarrerik eztagon artean berriz ere bilduko gera.

PERU JAUNA: Portu sarreran kardalarekin nola ibilli zerate? Laiño trinkoa baitzen.

KELEO: Kardalaren bildur nekez izaten gera. Ezta lagun ona, baiñan berarekin ezaupide aundia dugu eta ingurutik artzea ezta zaila izaten. Itxaso zabalean larriago ibilli gera aurtengo ontan. Beiñola, Gijon'go aurrian, amabost millara gutxi gora bera, bi orduan egon giñan brankeran txaranbelari ta gero amuraka sartu giñan Gijon'en. Egun artan, gure txaluparen koastak eraso ederrik artu zun! Baiñan, goazen Atxukale barrena etxeruntz... Gure etxeoandreak eltzea «masitu» omen du eta zerbait izango al-da!

AMARGARREN JARDUNALDIA

Lengoak eta AGATA

AGATA: (*Bere gordelekuatik atereaz.*) Zagoz pixkabat osaba, zurekin itz egin nai nuke-ta.

PERU JAUNA: Emengo aldi, Agata?

AGATA: Arrantzalieren etorrera ikusten izan naiz... Ba-dakizu, etxeoak ez dute nai kalean bakarrik ibili nadin, arrantzaleekin laguntasunik ez egitearren eta orretxegatik itzulian etorri naiz.

PERU JAUNA: Gezurra dirudi! Nun billatuko duzu emen baiño lagun oberik? jende auen biotz xalotasun eta ontasunik nekez arkituko duzu gure jauregitan.

AGATA: Ni ere uste orretakoxia naiz, osaba.

KELEO: Pello, zure illobarekin egon artean, Atxukale'raiño igoko naiz. Ba-dakizu, Mutriku'ko arrantzale zaharren atsegin tokia uraxe dela. Mintza zaitzete trankil, andixek itxaso zabalari begira ez taitan egongo bainaiz.

PERU JAUNA: Ongi da Keleo... Aizu, ta ahaztu baiño len, gaurko aparria Kalamaxenian dugu.

KELEO: Benetan? Etxekoandreak ezta zer esango dun baiña...

PERU JAUNA: Santa Kruz bezperan ez al-dizu ezezkorik esango!

KELEO: Esan ez, baiña... Bekoki xamurra jarriko zaio. Itxasotik etorri ta lenengo egunean! (*Bijoa.*)

AMAIKAGARREN JARDUNALDIA

PERU JAUNA eta AGATA

PERU JAUNA: Dakustanez, gure arrantzaleak ziñez maite dituzu, Agata.

AGATA: Bai, osaba, beti maite izan ditut, zuk diñozun bezala ain baitira xaloak, biotz zabalak eta emankorrek. Baiñan, bildur naiz, arrantzialien ontasunak sobera onetsirik, nire maitasuna aurreregi joan ez ote den.

PERU JAUNA: Maitasuna ezta sekula geiegizkoa, Agata. Gizakumeok, eskuarki, maitasun indar urrikoak gaituzu eta iñoiz-edo maitasun batean biotz osoa iraultzen ba'dugu, ez dezagun pentsa geiegizkoa denik. Gure Jaungoikoa'k neurrigabe maite gaitu. Guk ainbesteari ezin, gizakumea orotan baita neurriduna, baiñan maita dezakegu eta maita bear dugu gure indarrak eman ahalean.

AGATA: Eztut uste nik esanaia ongi jaso duzunik, osaba. Zuk diñozunez, nire biotza maitasun sutsu batean iraulirik daukat, baiñan eztakit maitasun ori bidezkoa, zuzena, egokia danentz, osaba.

PERU JAUNA: Maitasuna garbia ba'da. zergatik ezta bidezkoa izanen?

AGATA: Erabe naiz auzi onetan eta ez natzaizu ongi mintzatzen. Nire biotz maitasuna bidezkoa eta zuzena dela ba-dakit, ziur naiz, nire zentzunak orrela aitortzen baitik eta barruko deiak eztit okerrik salatzen... Baiñan, maitetasun ori niretzat zillegi oteden eztakit. Zeatzago mintzatuz, ziur naiz gure gizartean zillegi etzaitana...

PERU JAUNA: Ulertzen dizut, Agata. Mutillen bat maite duzu gizalegez zerorren maillekoa ez dena. Arrantzalea apika... (*AGATA lotsakor geldi bedi, erantzuteke eta gorritualdi batek arpegira erasorik. Maiteki laztanduz illoba.*) Zabaldu zaidazu biotz ori batere bildurrik gabe, Agata. Ba-dakizu, nire illoba guzitan maiteena zaitutana eta beti prest naukazuna laguntzeko.

AGATA: Eskarrikasko osaba, milla esker. Izan ere, zugan bakarrik baitut itxaropena aspalditxotik samintzen naun auzi ontan.

PERU JAUNA: Nor duzu mutilla, Agata? Esan garbi, une ontatixe zure alde naukazu-ta.

AGATA: Orra ba, Joxe Migel da, Keleo'ren semea...

PERU JAUNA: Jaungoiko maitea!

AGATA: (*Ikara.*) Zer, osaba?

PERU JAUNA: Nire lagunik onenaren semea, Agata!

AGATA: Poztutzen zaitu?

PERU JAUNA: Ni ben-benetan, baiñan gizarte zital oni gogor ekin bearako diogu.

AGATA: (*Kezkati.*) Ez al-dute amor emango, osaba?

PERU JAUNA: Nik lagunduko dizut bear bestean, baiñan, ahal delarik, gure kristautasunak orrela agintzen baitigu, gurasoen on-iritziarekin jokatu bear dugu.

AGATA: Ziñez sentitzen dut gurasoak nai ezean orrela atsekabetu bearra, baiñan maitasun kartsu oni ezin jarri diot esirik...

PERU JAUNA: Maitasunari etzaio sekula esirik jarri bear. Maitasuna Jaungoikoa berbera baita eta gure biotzak maite duten oro Aren ixuria da. Ez ditzagun, ordea, maitasuna eta maitakeria nahasi, lenengoa zuzena eta Jaungoikoa'ren gogokoa danez, bigarrena okerra baita, gure grifa txarretan sortzen dena.

AGATA: Nik maitasunez maite dut, osaba, ez maitakeriz.

PERU JAUNA: Sinisten dizut, zure biotzak ezaguera aurreko xalotasuna baitu. (*Atsaldi bat egiñaz.*) Eta noiztik duzute alkarrenganako zer ori?

AGATA: Urtebete bai, bere ikuste utsarekin nire biotza maitemiñez zauritu zela. Geroztik, ikustaldi bakoitzean nire biotzaren eragiña aundiagotzen joan zen. Kanean nijoalarik, ikusten nun guzitan begiratu sakon bat egiten nion, bere begietan niganako maitasun samur bat billatu naian, iñolaz ere. Begiratuok gero ta luzeagoak, gero ta ausartagoak egin ziran bion aldetik. Beiñola, Ondarru'ko jaietan alkarrekin dantza egin genun eta arrezkero alkarrekin egoteko gelditu giñan bein eta berriz, gutarteko maitasuna itzez eta egitez tinkotu zen arte...

PERU JAUNA: (*AGATA maiteki laztanduz eta Jaun Zerukoari dear egiñaz.*) Jaungoiko maitea! Zergaitik gaituzu mundu onetan goikotan eta bekotan bereizten? Zergatik alako esiak batzuen eta besteen artean? Ez al-gera apika berdiñak zure begien aurrean

zure ume ta sorki gaituzunok? Egia, gizadi au zerorren jakintasun berdigabeen gizamailletan bereizi duzula, baiñan aundikiak eta apalak esiz bereiztea ezta zure lana, aundinaikeriak eragindako gizalan zitala baizik. Jauna! Bi biotz xalo auek ez al-dute alkar maitatzeko eskubiderik? Ez ote dugu euskaldun orok kabi berbera sorleku? Mendi-egaletan sakabanaturik dagozen baserri maitagarriak, orra or euskaldun aundikiak eta apalak berdintzen dituzten lekuko bikaiñak! I, aundi-maundi, ez aiz iñundik ere ire odolokide apala baiño jatorri goitarragua. Batzuk aberats, besteak lander, baiño danok gera leñargiak, danok berdiñak Euskalerrri'ko seme geranok... Jauna, egizu, zure ahaltasun neurrigabez, sorleku batean jatorri izan duten bi izaki auek, BEIN BETIKO, bizileku batean alkartu ditezela...

OIALA

BIGARREN EKITALDIA

Agertokia uriko enparantza nagusia. Agertokiak plaza-kutsu izan dezan, gibelean, adibidez, eliza eta saiets batean udaletxea bere arkupe ta guzi ager bitez.

LENENGO JARDUNALDIA

LUIXA eta ANDRE JOXEPA

ANDRE JOXEPA: Dirudinez, Agata berearekin atera dun.

LUIXA: Ez niñan, ba-ezpa'da ere, oraindik kukurrukurik joko. Markes jaun-andreak azari aundiak ditun eta auskalo zer burubide dabilkiten beren egitekoan.

ANDRE JOXEPA: Boskarren illabetea ba-dun Joxe Migel Salamanca'ra bialdu zitenala estudiantzera eta ontaz aurrera itzekoak izango al-ditun!

LUIXA: Orra ba, Joxepa, etzekiñat nik zer esan. Mutillari beren alabarekin ezkontzeko jarri zioten baldintzak oso kezkatuik naukatxion. Salamanca'ra joan bear omen ziñan estudiantzera pixkabat ere edukatzeko eta buruz jazteko... Zelan esaten diote ba orain? (*Ezin asma.*) Zera... dun, kulturadun. gizona izateko alegia, iñoren aurrean ez-jakiñarena egin ez dezan, nunbait. Aundikien artean lotsagarri bai omen da gu bezalako ezjakiñak eta landugabeak izatea... Baiñan, Joxepa, neri esango didan, bizi guztian tutik estudiatu ez diñan mutillak, erderaz deusik jakin gabe gaiñera, zer egiteko zeukan Salamanca'n?

ANDRE JOXEPA: Arrantzán egin... Besterik ba'al-zekiñan ba, Joxe Migel'ek?

LUIXA: Arrantzán egin ez, Joxepa, Salamanca'n itxasorik ezpaitzegan ortarako. Arrantzak, bai. egingo dizkin arek galantak, gure ukulluko astuaren moduan.

ANDRE JOXEPA: Ixtudianteen artean arrantzaka asten baldin ba'dun, a ze makillazuak artu bear ditun.

LUIXA: Bai, orixe. Bere ikaslagunen iseka ta burlak burutzen bakarrik naiko kalbario izanen din. Kultura baiño, sufrimentua zer dun obeto ikasiko din gizajoak...

ANDRE JOXEPA: Eta ezin al-zitenan mutilla, Donosti'ra, Bergara'ra, Oñati'ra edo beste urreko toki batera bialdu, edukaziño eta estudio pixkabat eman nai ba zioten?

LUIXA: Bai zera! Baldintza orrekin bakarrik amor eman zitenan neskaren gurasoak. Eztakin ondotxo zelako trumoiak ibilli itunan auzi au erabaki artean. Markes jaun-andreak bere onetik atera itunan Peru jaunak maiteminduen berri ziotenean. Sumin-sumin eginda, neskari, Joxe Migel'engana geiago ez urbiltzeko agindu ziotenan eta etxetik ateratzen ere gal-erazi ziotenan laguntzalle batekin izan ezik. Peru jaunak ikaragarriak esan zizkian markex petralai, kristauak ere etziralara orrela jokutzen zutenak, arrokeria beste gizalegerik etzutela eta abar... Azkenerako ordea, neskaren osasun-ezak ikaratu zizkiñan. Jateko ganorik ez,

egunean baiño egunean goibelago ta medarrago, izketan ere ezin egin erazi... Zer nai dun, Joxepa? Nik ba-zekiñak zerbait amodio kontuan, asko sufritu baidiñat nire gaztetan itxaropenik gabeko maitasunetan eta Agata'ri gertatutakoak ez natxion batere arritzen. Ni ere ala egon niñunan, jankar eta nakar, ziaro pattalduta eta iltzeko desiota sarri... Orra ba, alaba itxura ontan ikusita, gurasoak ziaro larritu itunan eta medikuari ots egin ziotenan. Baita onek garbi itz egin ere. Alegia, neska galdu nai ezpa-zitenan, amor emateko beren seta gaiztoari eta Joxe Migel'ekin ibiltzen uztekotan pozaren pozez ziaro pizkortuko zela.

ANDRE JOXEPA: Peru jaunak eragingo zionan medikuari orrela itz egiteko, lagun aundiak baiditun...

LUIXA: Eztiñat ezetzik esango, baiñan, neska aren planta ikustea aski omen unan edonor ikaratzeko. Arpegia zuri-zuri eta matrail ezurra agirian jarri omen zitzaizkionan...

ANDRE JOXEPA: Nork kontatu dizkin ipui oiek denak?

LUIXA: Kalamax'ek esan zizkidanan. Ba-dakin, orain laguntasun aundia zeukanagu alkarrekin.

ANDRE JOXEPA: Bai zera! Neska gaztiz aseta, neska zaharren atzetik asi al-dun, apika?

LUIXA: Kalamax neska zaharren atzetik? Ederki eman ere! Oraindik etzaion burutik egin alproja zahar orri... Baiñan, ba-dakin. Kalamax'ek bere laguntasuna eskeiñi zidan Inaxi berenganatzeko eta berak, trukean, beste zerbait agindu zidan...

ANDRE JOXEPA: Baiñan lenago ez al-intzanan tratuan nire alabarekin?

LUIXA: Bai, ala niñunan, baiñan, neri oker atera zitzaidalako Joxe Migel bereganatzea, Inaxi'k etzidan geiago lagundu izan nai Goñi-zahar nireganatzen eta orain lanbide ori Kalamax'ek agindu zidan.

ANDRE JOXEPA: Alperrik ibilliko aiz bada nire alaba Kalamax'ekin ezkondu naian. Naiago din bere burua urkabetik zintzilik jarri...

LUIXA: Baiñan, ik laguntzen ba'didan... Izan ere, Kalamax baiño sui oberik nun topa? Eguneroko ardua bere kontura izango zenuteke beñepein.

ANDRE JOXEPA: Ardoarekin eztun sabelik betetzen, Luixa.

LUIXA: Gizonak sarriago betetzen ditena ba ardoarekin eltzekoarekin baiño. Gaiñera, jakin zan, eztun ardua bakarrik, ontzako urriak ere guk xoxak bezala zeuzkanan orrek.

ANDRE JOXEPA: Bai, euki ere, asko eukiko din orrek, danak urtu ezpa'dizkin beñepein nesketan eta jan-edanetan...

LUIXA: Bai zera! Ik uste baiño gizon zuhurrago dun Kalamax. Orrek, korritutik bai galanki gastatu, baiñan kapitaletik ezta xoxik ere. Eta bere ardo zikiña saltzen zenbat diru ez ote din egin?

ANDRE JOXEPA: Arrantzale gizajoen lepotik.

LUIXA: Ori ala dun, Luixa, baiñan, orain zuek daukazute aukera tabernariaren lepotik jateko.

ANDRE JOXEPA: Eztun arrazoi txarra. Neronek ere gustorago artuko niñan Kalamax suitzat Joxe Migel bezalako arrantzale lander bat baiño. Gure neska zoruoni, ordea, nork kanbiazi?

LUIXA: Esaion, seta gaizto ortan jarraitzen ba'du, ez Joxe Migel eta ez Kalamax geldituko dela.

ANDRE JOXEPA: Saiatuko naun, Luixa, baiñan, alperrik izango dun.

LUIXA: Esaion, ni bezala mutxurdin geldituko dela!

ANDRE JOXEPA: Esango zionat, baiña...

LUIXA: Zer baiña ta zer demontre! Abereak bezala uztarritu ta kitto! Ez al aiz ba bere ama?

ANDRE JOXEPA: Ai, Luixa, Luixa, ama izatea zer den ba'ote dakin ik?

LUIXA: Izatea zer den ez, baiñan, izan naia zer den, bai ondotxo...

BIGARREN JARDUNALDIA

Lengoak eta PERTXAL

PERTXAL: Nik ere, ba-zekiñat ondotxo etxera joan da bazkari gabe arkitzea zer den, andretxo.

ANDRE JOXEPA: Ba-niak, senartxo, ba-niak...

PERTXAL: Zer ba-niak eta zer joango nauk. An egon bear unan aspaldian. Gizona etxera joan eta ez andre eta ez bazkari...

LUIXA: Andrea asko inporta zaik iri bazkaria eltzean arkitzekotan, alproja ez bestena!

ANDRE JOXEPA: (*PERTXAL'i.*) Barkatuko didak gaurkoz, senartxo. Luixa'rekin topo egin diat eta markeseneko albisteak ematen, orra, denbora igarri gabe joan.

PERTXAL: Eta ori al-dun ni bazkari gabe uzteko arrazoia?

LUIXA: Pertzal, ogitik bakarrik ez gaituk bizi Jaungoikoa'ren umeok. Ba-dituk albiste batzuk oturuntzik onenak baiño obeki betetzen dutenak.

PERTXAL: Eta zer albiste ditun ik kolku ortan? Saio txiki bat egin bearko diñagu ia beroiek entzunda jan gabe bizitzen geran. Bizimodua merkatuko zaigun orduntxe.

LUIXA: Orra ba, oraintxen esaten nioken Joxepa'ri, nire ustez, markes jaun-andreak ez dabilkitela asmo onik; denbora irabazi naian edo dabiltzala beren xede malmutzak aurrera ateratzeko. Ori orrela ezpa'duk, zertara bialdu ditek mutilla Salamanca'raiño estudiantzera?

PERTXAL: (*Zirikalari.*) Emen eztun Joxe Migel'en kategoriko eskolik izango-ta.

LUIXA: (*Benatsu.*) Nik ezagutzen dizkiat bada makiñabat aundiki, Oñati'n, Bergara'n edo Gazteiz'en estudiantzen ari direnak eta Joxe Migel'ek naiago zukean, emen inguruan, Euskalerrria'n gelditu, Salamanca'raiño joan gabe. Peru jaunak ere orixe besterik ez omen zien eskatu, baiña dena alperrik.

PERTXAL: Baiñan, Salamanca'ko eskola zer dela uste dun? Auntzaren gaberdiko eztula? Ez al-dakin, apika, Axular ere, Sara'ko erretorre ospetsua Salamanca'n estudiantzen izan zela? Eta bai aldakin nor zun maixu? Inpernuko Galtzagorri berbera!

LUIXA: Apaizak deabrua maixu? Dotore zion, to!

PERTXAL: Ik eztakin jainko txikien berri, Luixa, baiñan nik iturri garbitik zekiñat ori egia dana. Bai, Luixa; deabruak aiñako jakinduririk ez omen zeukanan iñork Salamanca'ko irakasletan eta aren pikardi guztiak ikasteko ixtudianteak irrikitzen egoten omen itunan. Gaiñera, deabruak ez omen ziñan xoxik kobratzen bere erakustaldiagatik. Berarekiko ordaiña auxe izaten unan soilki ikastaroa amaituta, ikasle guztiak bana-bana aterazi eskola-atetik eta azkenarekin gelditu bere gorputz eta animaren jabe.

ANDRE JOXEPA: Alako zuntzunkeriak nor kontatu dizkik iri?

PERTXAL: Andretxo: Ziburu'ko arrantzale zahar batek kontatuta zekizkiñat guztiok. Baiñan, oraindik eztiñat amaitu. Orduntxen esango didan Pertzal'ek zuntzunkeriak kontatzen dizkiñan ala ez. Orra ba; Axular sonatuari ere, deabruaren pikardi guztiak ikasteko gogo sortu omen zitzaionan eta aren eskolarako apuntatu unan. Ikastaroa amaituta, Galtzagorri'k aterazi zizkiñan, oi bezala, ikasle guztiak lerro-lerro, eta gure apaiz gizajoa, pikardiak ikasteko motela baitzen kottaua, azkena gelditu zen. Axular'ek, bere anima galduta ikusi zunean eternitate guztiko, onela oju egin zionan deabruari: «Eldu, eldu nire atzetik datorrenari!» Galtzagorri'k ori entzun orduko, Axular'en atzetik norbait zetorrelakoan, atzaparrak rau! luzatu omen zizkiñan, baiñan, besterik ezean, Sara'ko erretorearen itzalarekin gelditu omen unan eskuartean. Axular'ek ez omen ziñan geroztik bere inguruan itzalik ikusi.

LUIXA: Arek itzalik ez ziñan ikusiko, baiñan guk «itzalak» entzun dizkiñagu.

PERTXAL: Nik ere aitzen dizkiñat ire alboan suertatzen naizenetan.

LUIXA: Ago ba ixilik apurtxo batean eta aditu ezak nire ixtoriaren amaia. Zera esaten nikan, alegia, baldintza ori jarri ziotela, Salamanca'ra joatekoa, bestela ezkontzik etzela-ta. Pello jaunak, ezin bestean, amor eman ziken. Orregatik esaten nioken Joxepa'ri, oiek azpikeriz dabiltzala, txarkeri utsez, zapokerian...

PERTXAL: Eta ori beste albisterik ez al-dun?

LUIXA: Gutxi iruditzen al-zaik?

PERTXAL: Oso gutxi, lenago baiño gosetuago natxion-da. Ire albisteekin eztiñat gaurko sabela aserik.

ANDRE JOXEPA: Geuk ordea ase diñagu euk kontatutako fantasiakin eta ire tripa-zorriak azkure gutxi egiten zidan neri.

PERTXAL: (*Andreari txorrotx begiratzuz.*) Andretxo, berriketarik aski diñagu... (*Besoa eman bezaio eta bjoaz.*)

IRUGARREN JARDUN ALDIA

PERU JAUNA eta AGATA

(*Alkarrekin sartu bitez, naiz eskerretik, naiz eskubitik.*)

AGATA: Bai, osaba, benetan nago kezkatu. Illabete bat ba-da Joxe Migel'en albisterik eztaukatala.

PERU JAUNA: Askotxo da.

AGATA: Orain arte, astean bi edo iru eskutitz jasotzen nitun eta orra bat-batean aren berririk gabe gelditu.

PERU JAUNA: Eranegun Keleo'rekin egon nintzan eta arek ere, aspaldian mutillaren kartarik eztutela esan zidan. Nik agindu nion zure bitartez mutillaren berriak emango nizkiela eta orain arri ta zur uzten nauzu zu ere Joxe Migel'en albiste gabe zagozala jakinda.

AGATA: Samintasun oñazetan bizi naiz aren albisterik gabe gelditu naizen ezkeroz, osaba.

PERU JAUNA: Sinisten dizut, Agata.

AGATA: Gaixorik ote dago ba?

PERU JAUNA: Ori pentsatu bear.

AGATA: Baiñan, ala izanik, ez ote da arritzeko bera bezero dagon etxeoai ez esatea niri jakiñerazteko?

PERU JAUNA: Gaiñera, nire azkeneko eskutitzetan esaten nion bere berririk gabe naizela eta arren, idazteko zer gertatzen zaion esanaz. Ainbeste eskari eginda gero nola liteke Joxe Migel'ek ez erantzutea?

PERU JAUNA: Agata, garbi mintzatuko natzaizu; bere azkeneko eskutitzetan ez al-zenun ozkeri edo itxurakeririk nabaitu?

AGATA: Ez, osaba, lengo beroan idatzirik zegoen. Baiñan, zer esan nai duzu orrekin?

PERU JAUNA: Ba-dakizu, Agata, oraindik gaztetxo zeranarren, gizonaren leialtasuna emakumeaganako eztala sarritan egitazkoa izaten. Nik eztut Joxe Migel'ez orrelakorik pentsatu nai, baiñan, mundu biurri ontan gerta ditekena da emakume gaiztoren batek burua nahastea eta zuri zor dizun zintzotasunari uko egitea...

AGATA: (*Negarrez*) Joxe Migel'ek orrelakorik! Osaba, otoi, etzaidazu biotz au oñazez erdibitu.

PERU JAUNA: (*Illoba laztanzduz eta malkoak txukatuz.*) Agata, txuspertu zaitez, zuk diñozunez ezpaita orrelakorik izango.

AGATA: (*Negar-zotinka.*) Ez, ez, ezin diteke...!

PERU JAUNA: Egingo nuke beste zerbait ba-dela tartian... Baiñan ez estutu, Agata, egun asko baiño len jakingo baitut nik zer gertatzen den. Salamanca'raiño joan bear ba'da Salamanca'raiño joango naiz, baiñan, nire itza ematen dizut Joxe Migel'en berri aurki jakingo dugula...

PERU JAUNA: Amari esan al-diozu gertatzen zaizuna?

AGATA: Zertako? Nire samintasunaz poztutzeko? Ez, eztiot esan eta eztiot esango.

PERU JAUNA: Aitatxo Madrillen da, ezta?

AGATA: Gaur eguerdiko dilijentzian elduko da, Madrilletik egindako azkeneko eskutitzean esan zunez, atzo iritxiko omen zen Gazteiz'era trenian eta gaur etxera andik onako zalgurdian.

PERU JAUNA: Gaur bertan zure aitarekin egongo naiz. Ain zuzen ere, dilijentziaren ordua laister da. Kalamax'enian zai egongo natzaio eta zalgurditik jeixten dakustanean, agurtzeko aitzekian itzeginen diot. Zuk ez al-diozu itxoin bear?

AGATA: Ez, osaba, Lagun-dama zai daukat eta etxera joan bear dugu. Amatek esan baitu bera bakarrik aterako dela aitaren billa.

PERU JAUNA: Zuaz ba etxera, amak agindu bezala. (*Matrail batean musu bemaio.*)
AGATA: Agur, osaba.

LAUGARREN JARDUNALDIA

PERU JAUNA eta ANTTON

(*AGATA atera den beste saietsetik sartu bedi ANTTON.*)

PERU JAUNA: Zer modu, Antton?

ANTTON: Ttiriki ttarraka baiñan ba-gabiltzala oraindik ere gure urtiakin.

PERU JAUNA: Oraindik gizon gordiña eta sasoikua zagoz, Antton.

ANTTON: Sasoikua zertarako? Lanpernak biltzeko edo potiñarekin pantxo batzuk arrantzatzeko ozta-ozta eta ortarako ere norbait bear arraunai eragiteko... Sasoia bai, nirea, garai batekoa! Sekula etzait ahaztuko, Donostia'tik goizeko iruretan ertenda abantian nola etorri giñan Mutriku'raiño, San Pedro egun batez, Kalbario'ko prozesiñoa ez galtzearen. Aiek ziran denborak, Pello. Ez diñot arrokeriz, baiñan orain ezta orrelako gizonik eta orrelako federik Mutriku'n. Beraka goaz, oso beraka, gizontasunean, kristautasunean, euskalduntasunean...

PERU JAUNA: Egia diñozu, Antton; Euskalerra'ko gizonak gainbera dijoaz gure nortasunaren ezaugarri orotan. Esango nuke, Iparragirre euskaldun leñargia mundu ontatik joan zaigun ezkeroz, Gernika'ko Arbola santuaren kerizpe maitagarria arbuizatuz gabiltzala.

ANTTON: Alaxen da, baiki. Kalbario eta Izara Santiaren prozesiñotan ere eztago lengo berotasunik eta errespeturik. Iñua eta Salbia ere bestelako fedearrekin kantatzen ziran gure denboretan... Zertxobait esango dizut. Nire gaztetan zen, nire motikotan, obeki esateko. Artean, amalau urte besterik ez nitun eta nire aitaren kala-txalopan aieneko edo motiko bezala eramaten niñuten... badakizu, mandatu eta gaiñerakotarako.

PERU JAUNA: Orain zenbat urte?

ANTTON: Irurogeitabost ortxe-antxe. Antxobetan genbiltzan «Arritxu» deritzaion kalan. Goizetik etzen seguru egualdia eta atera ez atera ibilli giñan. Azkenean, lemazaiak ateratzea erabaki zuten eta Arritxu'ko kalara eldu bezain laister ikaragarritzko ekaitza sortu zen. Gure etxetakoak ikaraturik zegozen olako itxaso gaiztoa ikusiki. Mutrikuar mariñelik geienak itxasoan giñan eta gure larritasunaz gogoraturik (*etzegozen gizajoak uste okerrean*), San Migel'eko Nazarenu elizatariratu eta itxaso arroari begira jartzea erabaki zuten. Aizea izugarritzkoa omen zebillen, Kristoa zutik ezin eutsi aiñakoa, baiñan, ala ta guziz ere, atera omen zuten gure Nazarenu maitagarria lau kandelan artean. Monjak, organuaz lagunduta, ekin zioten Iñua ta Salbia'ri eta jendeak, negarrari emanaz, Zeruko Jauna'ri otoi egiten zien arren eta arren salba gintzala eskatuz. Alakoan, oartu ziren, Nazarenuaren inguruan ziran lau kandelak piztuta zirautela aize bolara ikaragarri artan. Mirarizko señaile zen, noski baiño noskiago, pertsonak zutik ezin egon ziran aizetan Nazarenuaren lau kandelak izekirik irautea. Artan igarri zioten Jaungoikoa'k nolabait salbatu gindula. Eta gertatu ere, alaxe gertatu zen, iru ordu luzetan itxasoarekin borroka gaitzean ibilli ondoren, nolabaiteko arin-arte sortu zen eta Getari'ko kaian sartu giñan Mutrikuar orok txalopa bat eta gizon bat galdu gabe. Bereala, «propiua» igorri genuen Mutriku'ra osorik eta onik Getari'ra eldu giñala adierazteko eta itxasoko arriskutan ibillitako gizon guztiok Itziar'ko Ama Birjiña'ren oiñetara joan giñan, pekatarion Amari eskerrak emateko. Esaera da, bein Nazarenu elizatariratu ezker eta Iñua eta Salbia kantatu, eztela itxasoan mariñelik galtzen... eta nik bezala Mutriku'ko arrantzale zahar guztiak aitortuko dizute egi auxe. Asko zor diogu Mutrikuarrok San Migel'eko Jesus Nazarenuari.

PERU JAUNA: Bai, Antton; Gaztañeta itxas-gizon ospatsuarekin asi eta gaurko belaunaldiraño makiñabat mutrikuar salbatu ditu Nazarenuak.

ANTTON: Gaztañeta Mutriku'ko seme leñargiaren aitzea ba-dut eta itxas-gudu batean larri ibilli zana ere bai. Baiñan, gertakizunok noiz eta nola izan ziran eztakit zeatz.

PERU JAUNA: Nik, asko edo gutxi, dakitana esango dizut beñepein. Gaztañeta itxas-gizon jakituna Errege Armadako Teniente Jenerala zen eta 1718'gn. urtean Cabo Passaro'n inglesen aurka borroka gogor batean jardun ondoren, etsaiak espe atxi zuten. Esana da, zauritua zetzalarik Nazarenuua agertu zitzaiola eta bere alboan otoika belaunikaturik Doloretako Ama. Orduan, Gaztañeta'k agindu zion Nazarenuua'ri, itxas-gudu artatik bizirik ateratzen ba'zun, bere ikuskizunaren bi irudi berdin egin eraziko zitula eta agustindarren monja-komentuan ezarri, berak iru alaba baitzitun komentu artan. Gure gizona onik atera omen zen eta Napoles'en egin erazi zitun bi irudiak. Mutriku'ra zetorrela bere irudi ta guzi, itxasontzia ondoratu omen zen, baiñan, irudiok osorik iritxi omen ziran ur-gainka kostaraiño. eta San Migel'eko elizan ezarri zituzten.

ANTTON: Gure artean esaten danez, egia ala gezurra, arrantzale bati agertu omen zitzaion Nazarenuua ito-zorian zetzala. Arrantzale onek agindu omen zion Nazarenuua'ri salbatzen ba'zun Mutriku'ko elizan bere irudia ezarriko zula. Salbatu omen zun eta Jesus Nazarenuua egin-erazi. Alabaiña, eskultoreak ez omen zun asmatu Nazarenuua'ren arpegia mariñelak ikusi bezala eta bigarrenez eginerazi omen zun. Bigarrenaren arpegia ere ez omen zen berak ikusitako berbera eta irugarrenez egin erazi zun. Irugarren au berdin-berdiña atera omen zizun eta Mutriku'ra ekarri.

PERU JAUNA: Bai, nik ere ba-dut elezahar orren aitzea, baiñan Gaztañeta'ren ixtoriak egi-usai aundiagoa dauka.

ANTTON: Dena dela, zelako arpegi itzala daukan gure Jesus Nazarenuak!

PERU JAUNA: Benetan da miragarri. Eztakit nor ditekean beraren egille, baiñan, nola-nai ere, Nazarenuua'ren arpegi espresiñoa artearen sormen bikain bat da... Baiñan, emen plaza erdian baiño, ez al-giñake obeki Kalamax'enian lanperna batzuk jaten txakoliñaz lagunduta?

ANTTON: Ezta burukizun txarra, Pello. Goazen, bazkaritako gogoa zabaldu dezagun. *(Bijoaz alkarrekin.)*

BOSTGARREN JARDUNALDIA

LUIXA eta KALAMAX

(ANTTON eta PERU JAUNA saiets batetik atera eta LUIXA ta KALAMAX bestetik sartu bitez. Au, arrain otar batekin esku batean eta kañaberarekin bestean ager bedi.)

LUIXA: Orain, arrantzarako burukizunak jo al-dik, Kalamax?

KALAMAX: Ontan ere saiatu egin bear, Luixa. Mutriku'n sortu ta azia naiz eta egundaiño eztut arrantzarik egin.

LUIXA: Eta asko bildu al-duk?

KALAMAX: Gure artean konfiantza ba-dugu, Luixa, eta garbi esango dizut: alerik ez. Etxekoak eta Peru jauna engañatzeko, platuxa, arraigorri eta txatxarru batzuk eskatu dizkiot Keleo'ri. Ezpaitut nai iñork nire lepotik par egiterik.

LUIXA: Arraiñak eztituk, nunbait, neska asko bezin kaskariñak ire amotik pikatzeko.

KALAMAX: Gauza guztiak jarduna bear dute, Luixa. Neskak bezala arraiñak ere nireganatuko ditut egonarriz aritzen ba'naiz.

LUIXA: Pazientzi urrikoa aiz i arrainketarako. Ezagun duk asperaspén egin da etorri aizena.

KALAMAX: Egia esan, amorrazita amaitu dut... Neska bat «konkistatzeko» eztut sekula ainbeste «masa» gastatu.

LUIXA: Ez iekan aukeran botako-ta...

KALAMAX: Botatzeko guztiak bota dizkiet, baiñan dena alperrik. Azkenean, ordubeteren buruan gutxieneko, nazka nazka eginda, atera dut bi errialeko txanpona patrikatik

eta uretara jaurtiaz, esan diet: «Babo arraiuak, torizue errial bikua, bai, eta erosi nai duzutena.»

LUIXA: Ordubeteko egoniam asko amorratu ba'aiz ere, eztuk umorerik galdu.

KALAMAX: Baiñan, Inaxi'ren zai egoniam ba'liteke, umoria ez-ezik pazientzia ere galtzea.

LUIXA: Arentzako non dituk ire abillidadeak, Kalamax?

KALAMAX: Arekin abillidadeak eztu deus balio. Baiñan, entzun nik esana: zuntzun ori delako Joxe Migel'ez maitemindu, ezpa'litz, ez nuke orain zure bearrik.

LUIXA: Dena dela, nire bearrean aiz.

KALAMA: Eta zu nirean.

LUIXA: Gaitezen bada pakean.

KALAMAX: Eta ezer aurrerarik egin al-duzu?

LUIXA: Oraindik gordiña zio. Baiñan, ago lasai, umotutakoan nik eskuratuko diat.

KALAMAX: Baiñan, seguru al-zera eskuratuko didazula, Luixa?

LUIXA: Ene! Gauza seguruagorik etziok munduan. Ik eztakizkik nire bideak.

KALAMAX: Lenbailen bear dut ordea.

LUIXA: Eztiat luzetsiko.

KALAMAX: Neska egoskorragorik eztut ezagutu. Jakin Joxe Migel'ekin jai daukala eta alare ezezkoari eutsi bear. Amaika neska nireganatu ditut armiarmak bere sarera euliak bezalaxe eta Inaxi'k amor eman nai ez.

LUIXA: Emango dik eta aurki. Inaxi'ren burua Arno'ko aitzia baiño gogorragoa duk, baiñan ba-zio.aren gaiñetik buru gogor ori bearbada zigorrez eziko duna.

KALAMAX: Bai ote?

LUIXA: Zer uste ukan? Denbora galtzen nabillela? Luixa'k eztik lur elkorrean azirik ereiten, Entzun orain: bere ama, Andre Joxepa, irabazia zeukat... diruaren otsera.

KALAMAX: Zuzen zabilta, Luixa. Nire ustean orixen da biderik egokiena, gurasoen kaxkoak berotu nire diruakin.

LUIXA: Dagoneko berotuak dagoz. Aurki, irakiten gal-gal jarriko dizkiat.

KALAMAX: Ba'ezpa'da ere, nire diruak goitik jota esan.

LUIXA: Ori utzi nire kontu, lan oietan ik uste baiño artistagoa nauk-eta.

KALAMAX: Beraz, lurra jorratu xamarra daukazu?

LUIXA: Nai litzake. Ama erabat nire alde zeukat. Pertxal'ek ere eztik gaizki artu eta andrea saiatuko zaiok burua berotzen eta bein aitak eta amak agindu ezkeru, Inaxi'k laister amor emanen dik, otxana, apala eta gurasoen esanekoa baituk.

KALAMAX: Ederki, Luixa, ederki, nik uste baiño trebeagoa zera.

LUIXA: (*Anpatuta.*) Mutriku guztian ez ukek trebeagorik arkituko.

KALAMAX: Baiñan, laister izan dedilla.

LUIXA: (*Berekiko.*) Ibilli bearko laister onekin, beste begibeltxen batek burua nahastu baiño len. (*KALAMAX'i.*) Eta nirea laister izanen al-da?

KALAMAX: Zuriakin egon trankil, Luixa. Berarekin itz egiña nago eta... illabete baiño len alkarrekin izango zerate.

LUIXA: Konforme al-da, beraz?

KALAMAX: Konforme ez-ezik pozak zorutzen.

LUIXA: Eta zergatik, orduan, illabetean zai egon?

KALAMAX: Zure lanak aurrerarik egiten ote dun ikusi bear baitut.

LUIXA: Ez al-diat esan ba nire aldetik dana egiña dagola?

KALAMAX: Dana... esana bai. Egiña egindakoan ikusten da. Ba-dakizu gure artekoa tratu bat dela eta biok batera jardun bear dugu.

LUIXA: Nik eztiat tori ta tati egingo. Itzeko emakumea nauk, Kalamax.

KALAMAX: Baita ni ere itzeko gizona, Luixa. Baiñan, itzak sarri aizeak eraman oi ditu eta zuk zurea elduta ba'duzu, nork jakin «or konpon» esanda utziko nauzun? Illabeteko epearekin, berriz, ba-dakit buru-belarri saiatuko zerana...

LUIXA: Ez ago i alproja txarra. Beti emakumeak galtzekoa. Orain ere burua makurtu bear.

KALAMAX: Ezkontzera ba'zoaz, komeni zaizu burua makurtzen ikastea...

LUIXA: Goazen, goazen etxe aldera... Buruarena berriz, gero ikusiko dugu nori tokatzen zaion makurtzea... (*Bijoaz.*)

SEIGARREN JARDUNALDIA

ANDRE KATTALIN eta ANDRE KONTXENSI

ANDRE KONTXESI: (*ANDRE KATTALIN'en aizpa.*) Beraz, orain da etortzekoa?

ANDRE KATTALIN: (*PABLO jaunaren andrea.*) Oraintxen dauka ordua dilijentziak. Ondo etorrita, emen bear zun onezkero.

ANDRE KONTXESI: Orrela ba'da, ni ere zai geldituko natzaio. Sarritan dilijentziok bear baiño geiago luzesten dute eta solasean diardugula denbora igarri gabe joango zaigu.

ANDRE KATTALIN: Bai, emakumeak ez gera bakartasunean egoteko jaiok. Norbait ezpa'dugu solas egiteko anima illundu egiten zaigu.

ANDRE KONTXESI: Pablo Madrillera joana zela esan zenidan, ezta?

ANDRE KATTALIN: Bai... ta ez. Jendearentzako Madrillen izana da soilki, baiña guretzako Madrillen eta Salamanca'n.

ANDRE KONTXESI: Arazo asko dabilzki nunbait zure senarrak.

ANDRE KATTALIN: Orra, egia esango dizut, Kontxesi, konfiantza osokoa baizera. Esan dizut zertara etorria naizen erriko plazara, nire senarraren errebitzera, baiñan eztizut esan neu nundik natorren eta ezta ere nire senarra zer eginkizunetik datorren.

ANDRE KONTXESI: Gutartean eztago ixilpekorik, Kattalin, eta esan lenbailen, entzuteko irrikitzen bainago.

ANDRE KATTALIN: Nik esango dizutana eztu iñork jakin bear. Entzun? Zuk eta nik eta kitto.

ANDRE KONTXESI: Bai, Kattalin, bai, ez nire bildur izan. Zer uste duzu, kontakatilluren bat naizela, apika, ixilpekoak barreiatzen ibiltzeko Madrilleko atezaiak bezala. Badakizu, gure «klasekoak» ez gerala makurkeri oietan murgiltzen.

ANDRE KATTALIN: Bai, Kontxesi, bai, eta eztizut iñola ere orrelakoekin nahastu izan nai. Baiñan, zure lagunik konfiantzakuenarekin ere etzaitzela labaindu esan nai nizun nire arretazko itzakin. Zerorren itzalak ere ezpaitu jakin bear ixilpeko auxe.

ANDRE KONTXESI: (*Jakimiñez urtutzen.*) Bota, bota, nire itzalak eztu deus entzuten-eta.

ANDRE KATTALIN: Lenengo, nundik natorren esango dizut... Badakizu gure zorigaitz ikaragarria, gure Agata'ren zoramen doakabea...

ANDRE KONTXESI: Bai, Kattalin, bai, jakin nuen. Baiñan, oraindik ere bereortan al-dirau?

ANDRE KATTALIN: Neska egoskorragorik ezta munduan sortu.

ANDRE KONTXESI: Jaungoikoa'k zentzatuko al-du orrelakorik egin baiño len!

ANDRE KATTALIN: Eztut uste zentzatuko denik berearekin atera gabe; gure alegin guziak alperrikakoak izan dira beñepein.

ANDRE KONTXESI: Apaiz bati ots egin bear zenioke, okerkeri aundi bat egiten ari dela adierazteko... Ori Jaungoikoa'ren naia eztela, pekatu bidean, inpernu bidean dabilela. Gure Jaungoikoa'k goikoak eta bekoak bakoitza bere tokian jarri zitula eta ez alkarrekin nahasteko, Bere naikizunak deabruaren tentaketak dirala eta abar. Kattalin, bildurra sartu bear diozute mundu ontako gauzakin edo bestekoakin... Tira, neuk ekarriko dizut Deba'tik eginkizun ortarako abade bat aproposa.

ANDRE KATTALIN: Ez, Kontxesi, etzazu orrelakorik egin, bildurbainaiz nire alaba onekin. Ez al-diozu igarri nola argaldu den eta koloreak kaxkartu? Nik eztakit zer dun ziur, baiñan ezta iñolaz ere txantxetako gauza. Bi alditan, etxeko eskallerak igotzean arnas-estuka gelditu zaigu, arpegiko koloriak ziara maxkalduta. Atzo izan zun bigarrena eta Agata'ri itzik esan gabe medikuarengana joan nintzan zer gertatzen zitzaion esatera. Onek esan zidan biotz-lesiñoren bat izan ditekela eta gaur arratsaldean beregana eramateko neska ikusi dezan.

ANDRE KONTXESI: Ez dadilla arriskudun gauzarik izan.

ANDRE KATTALIN: Jaungoikoa'k nai dezala. Baiñan, biotzeko zerbait baldin ba'da, nekeak, naigabeak eta emozioak aldebateratu bear zaizkio, ondoren txarrik ekar lezaiokete-ta.

ANDRE KONTXESI: Bai, orrela bada, arretaz ibili zaitzete. Nik pentsatu baiño bide legunagotik jo bearko duzute.

ANDRE KATTALIN: Bide ori aukeratuta dago. Itxaropen orri eskerrak bizi gaituzu joandaneke bost illabetetan. Baiñan, gure lotsa, erri guztiaren bixtan orrelako artu-eman laidogarria ezinbestean onetsiz. Iñoiz amaituko al-da makurkizun lotsagarri au!

ANDRE KONTXESI: Izan ere, eztakit nola ausartu ere egiten zeraten kalera ateratzen. Jendeak eztu abotan beste jardunik erabiliko.

ANDRE KATTALIN: Ez berriro orrelako aipakizunik egin, mintxuriak erasoko baitit. Baiñan, zer pekatu egin ote dugu, Jaungoikoa'k orrelako zigorra erabiltzeko gurekin? Bere legeak zintzo bete ditugu, senar-emazteok alkarrekiko leialak izan gera, pekatu tokiak iguin izan ditugu, dirua barra-barra ematen diogu bere Eliza'ri eta txiroai ere bai eske datozenean... Ona besterik eztugu egin eta orain Jaungoikoa'k kupida gabe zigorkatzen gaitu. Jaungoikoa zuzena ote den ere zalantzan jartzen zait une batzutan. Ikaragarria da aitortzen, baiñan nai ba'dut eta nai ezpa'dut, pentsamentu onek gero ta sarrera zabalagoa dauka nire gogoan.

ANDRE KONTXESI: Zergatik pentsatzen dituzu alako tentelkeriak, Kattalin? Jaungoikoa'k etzaituzte zigortzen. Aitzitik, bere nai santua da deabruari edatzen utzi dizkion sare galgarriok lenbailen urratzea. Tamalgarri da Agata'ren osasun bildurratetik akelarre nazkagarri au lenago ez amaitua. Besterik eziñean, zuen asmo lenbailen burutuko al-duzute!

ANDRE KATTALIN: Grure asmoa burutua dagola esan diteke. Baiñan, lenago esan bezala, arduratsu ibilli bear, gure alaba bakarrari okerrik gerta ez dakion.

ANDRE KONTXESI: Diruarekin estali ba'zenute garaiz...

ANDRE KATTALIN: Aurren-aurrena ortan saiatu giñuzun. Baiñan, ez Joxe Migel'ek eta ez bere gurasoak etzuten xoxik ere artu nai izan... Eta guk eskeñitakoa, sendi guzia berebizian lanik egiteke bizitzeko laingoa zen.

ANDRE KONTXESI: Orrenbesteraño, arrantzale arlote oieri!

ANDRE KATTALIN: Etzen beste biderik gure lotsakizunari lur emateko, baiñan, jende arroputz oiek ontzat artu etzuten ezkeroz, guk, eskubide guziz, beste bide bat aukeratu dugu.

ANDRE KONTXESI: Zer bide?

ANDRE KATTALIN: Ba'al-dakizu nundik natorren? Korreo etxetik. Ona emen (*atera bitza polsatik*), Joxe Migel'ek Agata'ri eta bere etxequai egindako sei azkeneko eskutitzak. Ez gure alabak eta ez Keleotarrak eztituzte ikusiko, etxera joan orduko erreko baiditut...

ANDRE KONTXESI: Baiñan nola jabetu zera?

ANDRE KATTALIN: Diruak ate guziak zabaltzen ditu, Kontxesi. Juxto karterua erosi egin dugu. Illabete ontan Agata'k eztu Joxe Migel'en eskutitzak jaso eta eztu geiago jasoko... Luzaro gabe ordea, bat artuko du, Joxe Migel bezero dagon etxekeoa, mutillaren ilberria emanaz.

ANDRE KONTXESI: (*Izututa.*) Il egin bear al-duzute? (*Bat batean dilijentziaren otsa entsun bedi.*)

ANDRE KATTALIN: Emen da dilijentzia. (*Begira jarri bitez.*) Orra, Pablo nire senarra dilijentzitik orain jatxi.

ANDRE KONTXESI: Baiñan jakingarrienean aria etenda utzi didazu, Kattalin...

ANDRE KATTALIN: Pablo'k kontatuko digu gaiñerakoa, emen da-ta.

ZAZPIGARREN JARDUNALDIA

Lengoak, PABLO eta mutil bat maletakin

PABLO: Jainkoa'k arratsaldeon, aizpatxo maiteak. (*Besarka bitza bi matrailletan musu bana emanaz.*) Zuen kunplimentua neurritz gaiñerakoa da.

ANDRE KATTALIN: (*Irritsu.*) Kartan esaten zeñidan dilijentzi ontan elduko ziñala eta billa atera gatzaizkizu. Andre on batek zer gutxiago eginen du bere senar maiteagatik?

ANDRE KONTXESI: (*Irripartsu au ere.*) Ni berriz, goizean eldu naiz Deba'tik nire aizpa maitearekin eguna pasatu ustean eta berarekin kalean arkitu naizelarik, esan dit

oraintxen zentozela txangotik. Dakuskezunez, gure kunplimentua ezta neurritz gaiñerakoa, neurrikoa baizik... Ta txango ori ondo egin al-duzu?

PABLO: Txit ongi, Jaungoikoa'ri eskerrak eta nire eginkizunak ere txit ongi atera dira. Au dala-ta, biziki pozik natorkizute zuen artera. (*Morrojari.*) I, mutil, eramaitzak maletok etxera, nik izketan luzetsiko baitiat bearbada.

ANDRE KATTALIN: Konta zaizkiguzu lenbailen zure ibilierak, entzuteko jakimiñez gaituzu-ta.

PABLO: Agata ez al-duzute zuekin ekarri?

ANDRE KATTALIN: Ez, etxean utzi dut laguntzalle ingelesarekin. Konta bildurrik gabe.

PABLO: Orra ba; emendik aterata Madrillera joan nintzen, bai-baitut an mediku ospetsu bat, Lucientes jauna, nire lagun aundia izana eta dena oraindik ere. Batxillerra alkarrekin egin genuen Jesuiten ikastetxean eta gero berak medikutzara jo zuen eta nik legetara. Baiñan, bera Madrillen bizi izanarren eta ni emen, beti gutarteko artu-emanari eutsi izan diogu. Gaiñera, politikak asko alkartu izan gaitu gaztetatik eta gure adiskidetasunaren oiñarririk sendoena auxen dela esango nuke. Delako Lucientes jaun onek, orain bospasei urte eroetxe bat zabaldu zizun Madrilleko inguruetan eta gure asmoak betetzeko gizonik egokiena bera gendula buruak emanik, beregana jo nun. Gure zorigaitz ikaragarria adierazi nion eta bere laguntasunaren bearrean giñala esan ere bai. Berak, ahal zun guztia egingo zula agindu zidan eta orduan nire asmoa agertu nion.

ANDRE KATTALIN: Otoi, itz bitan esplikaiozu Kontxesi'ri gure berri, ezjakiñean baitago.

PABLO: Gure asmoa auxen zen ba, Kontxesi: Joxe Migel indarrean artu eta Lucientes jaunaren eroetxera eraman. Onek, mutillari buruzko ero-agiri bat eginen zun guk agindu artean mutilla bertan eukitzeko. Artean, Salamanca'ko adiskide batek, gure aginduz, eskutitz bat eginen dio Agata'ri (eskutitz au egiña dago onezkera eta biar edo etzi elduko zaio gure neskari), Joxe Migel eritasun luze baten ondoren il egin dela adieraziz...

ANDRE KATTALIN: (*PABLO'ri erakutsiz.*) Emen ditut Joxe Migel'en azkeneko eskutitzak.

PABLO: Eztut uste besterik jasoko dunik, Madrilletik ezpainintzen erten Joxe Migel eroetxean sartu zutela jakin arte. Apupillo zegon etxean, gure aginduz, edarian narkotiku bat ezarri zioten eta lo ar-erazita eraman zuten zalgurdi batean Salamanca'tik Madril'eraíño bi gizonen artean ondo zainduta. Eroetxean lo sartu omen zen, beraz, esnatzea gela batean atxilloturik egin bide zun...

ANDRE KONTXESI: Zuk daukazu buru argia, Pablo, gauzak ain tajuz egiteko.

PABLO: Jaungoikoa'ri eskerrak, ondo atera da beñepein.

ANDRE KONTXESI: Eta noiz arte euki bear duzute eroetxean?

PABLO: Esan bezala, Agata'k biar edo etzi artuko du eskutitza Salamanca'tik Joxe Migel il dela eta bertako kanposantuan lur eman diotela adieraziz. Agata'k, berealakoan ezpa'da ere, gerora beintzat, etsipenez artuko du ezbear au eta bost edo sei illabete baiño len, aundiki baten semearekin ezkontza prestatuko dugu... Eta bein Agata ezkondu ezkeru, txoriari kaiolako atea zabaldu genezaioke.

ANDRE KONTXESI: Zu baiño gizon burutsuagorik ezta munduaren jiran, Pablo. Gaiñera, guziorretan eztiozute iñori kalterik egiten.

ANDRE KATTALIN: Gu ere uste orretan gera. Ez genituzke beintzat eskuak txarkeriz zikindu nai.

PABLO: Orrelakorik egin ezkeru, bizi guztia kezketan biziko giñake.

ANDRE KONTXESI: Eztaukazute bada zertan kezkatu. Aitzitik, aurki Jaungoikoa'k bedeinkapenez beteko zaituzte, deabruaren tentaketak uxatuz bide zuzena aukeratu duzutelako... Eta nor pentsatu duzute Agata'ren senargaitzat?

ANDRE KATTALIN: Ba-ditugu begiz jota mutil on batzuk leñargi goitar askuak. Adibidez, Almudena'ko markesaren seme zaharrena, Pinohermoso'ko markesaren bigarrena arekin moldatzen ezpa'gera, Sotomayor'eko markesak ere ba-ditu semeak ezkongai...

ANDRE KONTXESI: Eztituzute nolanaikoak begiz jo. Baiñan, zuen alaba bakarrarentzat nai litzake ainbeste... Eztei goitar ontarako soiñekoak prestatzen asi bearko dut. Eskerrak garaiz ibilli zeratena, gaiñerakoan beintzat, ez niñuzuten arrantzale orrekiko ezteietan errez ikusiko... Eta aipatutako norbaitekin... zertu, mintzatu alzerate dagoneko?

PABLO: Oraindik ez, baiñan, laister asiko naiz eginkizun ortan urratsak ematen. Niretzat ezta lanbide zailla, Españi'ko aundikitasunik bereizienarekin artu-emana eta laguntasuna baidaukagu eta batekin ezpa'da bestearekin, bost illabete baiño len alaba ezkondurik daukagu, berari dagokion maillan eta leñargitasunean.

ANDRE KATTALIN: Niri gauza batek ematen dit bildur: Joxe Migel askatzen dugunean zer gertatuko da?

PABLO: Ez izutu, Kattalin. Aginduta daukat Joxe Migel eroetxean errege bat bezala eukitzeko nire kontura. Zertaz salatu bear digu, beraz, andik etorrira, burutik eri zegolako an euki dugula adierazten ba'du Lucientes jaunak? Gaiñera, sendagille jaun au Madrilleko gobernadorearen adiskide aundia da eta bi edo iru ministrukin ere ba-du artu-emana. Ala're, zalapartarik sortu ba'ledi, kalte-ordain bat emanda dena zuzenduko da eta kalte-ordain au ezta izango iñolaz ere guk onez-onean Keleotarra eskeiñi genienaren laurdena.

ANDRE KONTXESI: Oso ederki egin duzu, Pablo. Zer uste zuten mariñel aundiputz oiek? Utsaren urrengo izan eta gabetik goizera gure pare jarriko zirala?

PABLO: Ori gerta baiño len obe litzake gure buruai azken gaizto ematea.

ANDRE KATTALIN: Etzazula orrelakorik, Pablo, Jaungoikoa'k zigorkatuko zaitu-ta.

PABLO: Beste biderik ez genuke ba, munduaren azkeneraiño ez itzul egitekotan, Kattalin. Gure onorea, aundikitasuna, leñargitasuna oinpetuta, lokaztuta, kirastuta, nola agertu jendearen aurrean?

ANDRE KATTALIN: Jaungoiko on-onari eskerrak ezta orrelakorik gertatu eta ez dezagun geiago orretan pentsa.

PABLO: Niri, Joxe Migel'ek baiño bildur geiago ematen dit zuen anai ziraun orrek.

ANDRE KONTXESI: Pello'k?

PABLO: Berberak. Gure urratsak arrek susmo txarrik artu gabe eman bear ditugu; bestela. idealista zoruorrek estuasun gorri batean jarri gaitzake. Agata ezkondu gero bere ostikada guziak alperrikakoak izanen dira, baiñan, Joxe Migel'en berri jakin ba'leza ura ezkondu aurretik edo Agata'ri kaskoa berotu ba'lezaio iñolako ezteirik ez onesteko...

ANDRE KATTALIN: Bitarte guzian eztiogu etxetik ateratzen utziko neskari. Obeakiago oraindik: Monja komentu batean sartuko dugu animaren pakea arki dezan aitzekian eta orrela ezti osabak atzaparrak erantxiko.

PABLO: Orrek ere bere arriskua dauka. Monja sartuta bertan geldituko litzake seta utsez. Ez, Ingalterra'ra igorriko dugu naigabeak ahaztu eta inglese obeki ikasi dezan aitzekian.

ANDRE KONTXESI: Ori da arrazoia, Pablo. Era ortaz Pello'ren atzaparretatik aterako duzute. Ikusiko litzake, goikuok bera eta bekuak gora ikusi nai lituzken anarkista orrekin! Euskaldun guziak berdiñak gerala, goikorik eta bekorik ez tala Euskalerra'n eta beste orrelako zozokeriak esaten ez titu ba?

PABLO: Esan eta egin. Ez al-dabil apika, goizetik gabera gure aundikitasunaren lotsagarri arrantzaleekin bere burua bat egiñik? Ezkondu ere, zeñekin ezkondu zen? Xotero'ren alabarekin, Mutriku'ko dendari baten alabarekin eta babuorrek arro-arro eginda titulurik aundienarekin ezkondu zela zion, alegia, Euskalerra'o alaba garbi batekin eta ori beste leñargitasunik ez omen du aitortzen berak.

ANDRE KONTXESI: Jaungoikoa'ri eskerrak ez giñan bere ezkontzara azaldu ere egin.

ANDRE KATTALIN: Orixe bear genuke ba, gure onorearen garbitasuna zikintzea orrelako eztei batean arrantzale ta dendariakin nahasi.

PABLO: Eta guztiori gutxi bailitzan, orain gure alaba bakarra arrantzale batzuen semeasekin ezkontzea nai. Ori iritxi ba'leza, bere ustean, Euskalerra'ren gurendarik aundiena izango litzake noski.

ANDRE KONTXESI: Buru zoruorrek obe luke Gernika'ko Arbolpera ezkurak jatera joan eta guri pakean utzi. Orain dela milla urteko legeak jarri nai eztizkigu bada Euskalerra'n? Abarkak jantziz eta taloak janaz «progresu» ederra ekarriko dio orrek Euskalerra'ri... Baiñan, ara bera!

PABLO: Eta guregana dator zuzen-zuzen. Izango du zerbait.

ZORTZIGARREN JARDUNALDIA

Lengoak eta PERU JAUNA

PERU JAUNA: Arratsaldeon dizutela Jaungoikoa'k.

IRURAK: Bai zuri ere.

PERU JAUNA: (*PABLO'ri adeitsu.*) Madrillen izan omen zera, Pablo.

PABLO: Bai, eta oraintxen iritxi naiz ango eginkizunak amaituta.

PERU JAUNA: Angoaldia eta joan-etorria ondo egin al-dituzu?

PABLO: Oso ederki, Jaurigoikoa'ri eskerrak.

PERU JAUNA: Asko poztutzen naiz.

PABLO: (*Berekiko.*) Ez intzake askorik poztuko zertan ibilli naizen ba'eki. (*PERU'ri.*) Zerbait nai al-zenduke

PERU JAUNA: Ain zuzen ere, zuekin egonbearra nun galdekizun bat egiteko.

PABLO: Zerorrek esango duzu.

PERU JAUNA: Oraindik ordu-erditxo ezta izango Agata billatu dutala kalean eta gaixoak biotza erdibiturik zeukan. Esan didanez, illabete ontan ez omen du Joxe Migel'en kartarik artu.

ANDRE KATTALIN: Artu eztula? Zerbait gertatu ote zaio bada?

PERU JAUNA: Ori nai nuke jakin nik.

PABLO: Ba-dakizu, ni, ain zuzen ere, illabete ontan Madrillen egon naizela eta ezertxore eztakit. Dena dela, oraintxen egongo naiz Agata'rekin eta niri esateko bildurrez egon ez dadin, neronek galdetuko diot zer gertatzen zaion.

ANDRE KATTALIN: Gaixoak eztit ezertxore esan eta nik, egia aitor, eztiot igarri.

PABLO: Ziñez aitortu bear ez dela ezkontza au gure gogokoa, gure leñargitasunari makurgarri baitzaio. Baiñan, gauza guzien gaiñetik bera gure alaba da eta bere zoriona besterik eztugu. Beraz, guretzat latz eta garratz izanarren, etsipeneratu gera auzi ontan eta bere amari orrelako galdera bat egiteko ez luke lotsik edo bildurrik euki bear.

ANDRE KATTALIN: Zagoz lasai, Pello, guk biotza zabal-zabal eginen diogu neskari eta bere zorionaren ardura izanen dugu.

PABLO: Dena den, milla esker gure alabari diozun begirune eta maitasunagatik. Nik, gaur bertan idatziko diot Joxe Migel bezero dagon Salamanca'ko sendi on orri eta berealaxe jakinen dugu zer gertatu den.

PERU JAUNA: Eskertuko dizut orrela egiten ba'duzu, Pablo. Ain zuzen ere, oraintxen egon naiz Antton zaharrarekin, Joxe. Migel'en aitonarekin alegia, eta ezin izan diot billobaren albisterik eman. Dakizutenez, Agata'k niri ematen dizkit aren berriak etxeokoi kontatzeko eta eranegun Keleo'rekin topo egin nun eta kezkatu xamarrik zegon mutillaren kartarik jasotzen etzutelako. Nik ez nion garrantzi aundirik eman amabostean bein idazten baitu..etxera, baiñan, orain txunditurik gelditu naiz Agata'k ere jasotzen eztula jakitean...

PABLO: (*Sorbaldako xuri bat emanaz PERU'ri.*) Esan ba Keleo'nekuai lasai egoteko. Nik gaur bertan karta eginen dutala Salamanca'ra eta bere albisteak laister jakingo ditugu. Agata'gatik berriz, ez axanpetan egon, oraintxen mintzatuko gatzazkio eta bere animako samintasuna gozatuko zaio.

PERU JAUNA: Milla esker zuen ongina eta prestutasunagatik. Zuen zalduntasun eta leñargitasunean uste osoa daukat eta eztut uste iñolaz ere zuen jatorri goitarra jokabide makurren batekin zikinduzale izango zeratenik.

PABLO: Milla esker zure oartxoagatik, Pello.

PERU JAUNA: Ezta ezer asko, Pablo, baiñan ez ahaztu oarrak gogoan eukitzeko dirana. Besterik ez.

OIALA

IRUGARREN EKITALDIA

*Agertokia, Mutriku'ko kaia, lenengo ekitaldiko toki berbera.
Aldakizun bakarra giro margoarena, lenago udara bete argitsua
zen bezalaxe, orain abenduko arratsalde beltz illuna baita.*

LENENGO JARDUNALDIA

Markes senar-emazteak

- PABLO:** *(Besotik elduta, kuttunki sar bitez senar-emazteak.)* Bizi guzian izan zait atsegingarri, nire lanak amaitu ondoren, Atxukale'ko gaindegi zoragarritik igaroz, gure erriko kai zahar ontara txango etortzea, Zorigaitzez, aspaldi ez giñan etorri, gure buruak kalean agertzeaz lotsatzen baigiñan.
- KATTALIN:** Bai, aspaldiko partez gaur dugu lenengoa. Alabaiña, orain eztaukagu zertaz lotsatu Jaungoikoa'ri eskerrak eta gaurgero maizago etorriko al-gera kutsu darion kai ontara bela-txalopa eta potin liraiñak ikustera.
- PABLO:** Bai, gure lotsakizun denbora joan zen eta orain buru arro pasa giñezke non-naitik.
- KATTALIN:** Baiñan, gure buru-goitasun eta aundikitasunari zutik eustearren ia-ia alaba galdu genun. Joxe-Migel'en ilberria jaso zunean izan zun biotzeko atakia ikaragarria izan zen. Etsipenari emanda gero, uste ezean, poliki-poliki onik jarri zen. Bearrik, Burgos'en igaro duten aurtengo udaraldiak bere osasunari on aundia egin dio.
- PABLO:** Ezin ukatu gure alaba Il-agiñean jarri dugula, baiñan ori igaro zen eta gure lotsakizuna garaitu dugu. Aurtengo Eguberri jaiak gure artean igaroko dituzte eta gero bein betiko beren kabia Madrillen jarri beariko diegu, emengo giroa baiño obe baitu angoa.
- KATTALIN:** Agata'k naiago zukean Donostia'n, itxasorik gabe ezin bizi dela esaten baitu eta nik ere naiago nuke, Madrillera joatekotan tokitan gelditzen baitzaigu alaba...
- PABLO:** Dena den, orain gure artera etorriak ditugu eta alkarrekin itz eginen dugu erabateko bizilekua nun derizkioten egokiago. Non nai dela, beren aundikitasun eta leñargitasunari dagokien etxea jarriko diegu.
- KATTALIN:** Guztiorrek, zahartzen ari gerala esan nai du, Pablo. Laister aiton-amonak gaituzu, baiñan, ala ta guziz ere, alaba ezkondu gendun ezkeroz zoriondun bizi naiz. Egiari zor, ezkontza ez genun egin guk nai aiñakoa, baiñan, Joxe Migel'en atzaparretatik atera dugunean, egon giñezke kontent.
- PABLO:** Bai, tamalez, eztugu iritxi markes edo duke sendi batekin lokartzerik eta gainbera etorritako konde batekin naikotzat etsitu bearrean arkitu gera. Baiñan, Joxe Migel ezin zitekean luzaroan gordean euki arrisku gabe eta naitanaiezkua zen lenbailen ezkontzea.
- KATTALIN:** Lapuebla'ko kondeok, jatorriari begiratzuz beñepein, eztira ain gauza utsa. Gu aiñakoak ez izanarren, Medina del Campo'n, euren errian alegia, jaun aundikitat omen dituzte.
- PABLO:** Errian dirauteño zerbait ditezke, andik erten orduko utsaren urrengo.
- KATTALIN:** Bai, ori ala da, baiñan guk eztugu iñoren aurrean olakorik esan bear, bestela, gutxietsiko gaituzte. Jendearen aurrean jo dezagun goitik Lapuebla'tarren aundikitasuna.
- PABLO:** Iñundik ere, jatorrizko aundikitasun ortara jo beariko, dirutan oso ezkontza kaxkarra egin baitugu. Lur-jotako jendea, zorra beste ondasunik eztaukatena.
- KATTALIN:** Baiñan, ala're, itxurak gordetzen iñork ez bezala dakitenak. Bazter guzitan zorrak izanarren, nork esan beren maillari dagokionez bizi eztiranik.
- PABLO:** Zorionez, Medina del Campo emendik oso urruti dago eta emengo jendiak eztu jakingo zeñen eroriak dagozen Lapuebla'ko kondeak.
- KATTALIN:** Gure Jaungoikoa'k gurutze bat kendu digu eta bestea eman.
- PABLO:** Guretzat ordea, eramangarriago.

KATTALIN: Eztizut ezetzik esango, baiñan egon ziur, Keleo'tarrak etzigutela sekula xoxik aterako beren pobretasunian eta lotsagabeok, dagoneko, diru eskean asi zaizkigu euren zorrak estaltzeko.

PABLO: Amar milla errial eskatu zizkidaten...

KATTALIN: Ezta auntsaren gaberdiko eztula. Eta eman?

PABLO: Bearko, ezkontz egunean izan baitzen, baiñan laister itzultzeko idean...

KATTALIN: Lenengo amar millak eman ba'dituzu, emanak dagoz, baiñan etzazula itxoin berriz ikusterik. Nondik itzuliko dizute tripa-zorria zerkin engaña eztaukatenok?

PABLO: Aurreneko eskea zen eta ezin ukatu, baiñan, berriz eskatzen ba'didate, aituko dituzte berenak eta asto beltzarenak.

KATTALIN: Engañatuko zaituzte berriz ere, kottau ori, oien koipe ta loxintxak zuk baiño geiago dezakete. Ezagutzen zaitut, senartxo.

PABLO: Oker dabilta koipelustreok nirekin. Ez didate berriro iruzurrik eginen.

KATTALIN: Ba, euren ustean urre minarekin topo egin dute. Orain egun batzuk entzun nun esaten Madrillera joan bear dutela bizitzera... noski, gure errapeari eraginda.

PABLO: Ezta egia izango.

KATTALIN: Larri ibilli. Orain artean uri zikin ortan bizi ba'ziran, Madrilleko etxe-bizitza baten errenta ordaindu ezin zutelako zen. Eta egingo nuke, orain atera dizkizuten amar milla errialak (eta aurki aterako dizkizuten beste amar millak), eztituztela zorrak ordaintzeko, Madrillen berai dagokien etxe bat artzeko baizik.

PABLO: Arrano, arranoa! Eztidate ba niri geiago xoxik aterako. Eztakite ondotxo norekin ari diran.

KATTALIN: Guztiauek beñepein, eztitezela Pello'ren belarritarra eldu. Gutzaz parre egiteko ez luke besterik bear.

PABLO: (*Kezkati.*) Eztakit ba, obe ez ote genuken, Pello'ren esanari jarraituz Joxe Migel'ekin ezkontzea gure alaba. Izain oiek azkeneko odol tantaraiño xurgatuko digute.

KATTALIN: Ez, Pablo, egon trankil, zu ausartzen ezpa'zera dirua ukatzen, niri aituko dizkidate asto beltzaren arrantzak eta ostikadak. Mutriku'ko alaba naiz eta arrantzale odola daramakit zaiñetan.

PABLO: Kattalin, lenengo aldiz entzun dizut olako zatarkeria esaten!

KATTALIN: Barkatu, barruko irakiñean esan dut-eta. Nire odolaren urdintasuna...

PABLO: Bai, bai, ba-dakit ortik aurrerakoa, ez jarraitu... Besterik esan nai nizun ordea. Gaur jaso dut Lucientes jaunaren eskutitza, zera esanaz, alegia nire aginduak jarraituz, Joxe Migel joan den astean urkatu dutela.

KATTALIN: (*Ixututa.*) Urkatu?

PABLO: Urkatu esan al-dut? Barka, barka, buru zoro au eztakit nola dabilkidan aspaldi ontan. Askatu, esan nai nun.

KATTALIN: Ba-negon ba...

PABLO: Eta zer deritzazu?

KATTALIN: Trumoiak aurki joko dula.

PABLO: Trumoiak besterik eztan artean...

KATTALIN: Ez ezta gauza aundia.

PABLO: Aizea prexkatzen asi da eta ongi ba'deritzazu etxeruntz joango gera.

KATTALIN: Bai, bai, goazen, Joxe Migel'ekin kalean topo egin baiño len.

PABLO: Naiago dut Joxe Migel'ekin topo eta ez Pello'rekin. Onekin ibilli bear dugu kontuz. (*Bijoraz.*)

BIGARREN JARDUNALDIA

KALAMAX eta INAXI

(*Alkarrekin sartu bitez jardunaldian berotuak baletoz bezala.*)

KALAMAX: Azkenekoz alkar ikusi gendun ezkeroz gora-bera aundiak izan dira gure artean.

INAXI: Eztakit zer esan nai duzun orrekin, «gure artean» gauzak lengo tokian baidiraute.

KALAMAX: Gure inguruan gauzak aldatu ba'dira, zergatik ez ditezke alda gure artean?

INAXI: Nire biotza lengo tokian dagolako.

KALAMAX: Zure biotzak eztauka lengo tokian egonik, Inaxi. Joxe Migel il zela bost iliabete dira. Garaia da, beraz, maitasun zahar ori ahaztutzeko eta beste zerbaiten pentsatzen asi.

INAXI: Ori nire kontua da. Baiñan ziur egon zaitez, iñoiz beste maitasun baten pentsatzen asten ba'naiz, eztela zurean izanen.

KALAMAX: Enun uste ain arbuiagarri nintzanik, Inaxi.

INAXI: Arbuiagarri ez ezik, nazkagarri.

KALAMAX: Eskarrikasko zure lore orregatik; baiñan zergatik diñozu ori?

INAXI: Luixa'rekin egin duzuna egiteko eskubiderik eztagolako, nazkagarri batek bakarrik egin dezakelako alako urdekeria.

KALAMAX: Et, et, et. Poliki ortxe. Nik Luixa'rekin egiña eta Luixa'k nirekin egiña uztarri baten lotzekoa da. Alkar engañatzen ibilli gera.

INAXI: Ez, aixkiria, ori ezta egia. Zuk Luixa engañatu egin duzu eta Luixa'k zeu ez. Onek, geieneko ere, bere lanari koipe pixkabat emango zion, baiñan beti asmo garbiz jokatu zun, gogor saiatu baitzen nire ama berotzen zurekin ezkon nadin eta ark itxaropenak eman zizkion. Ala're, nik ezezkoan iraun nun eta dena alperrik izan zen. Baiñan, zuk Goñi-zahar'i ezkontzaz itz egin zenionian, ark lenengotik ezezko borobilla bota zizun eta zu gezur ta iruzur ibilli zintzaion Luixa'ri, ura zoraturik zegola esanaz, zurea nola edo ala ateratzekotan.

KALAMAX: Zuk nola dakizu Goñi-zahar'ek zer esan zidan niri?

INAXI: Goñi-zahar'ek berak orain illabete nire aitari esan ziolako.

KALAMAX: Ori egin ba'nun, zure biotza irabaztearren egin nun soilki eta ez txarkeriz.

INAXI: Nire biotza irabazteko ustelegi dago zuria.

KALAMAX: Kontu mingain orrekin, Inaxi, min egiten didazu-ta. Zuk diñozunez nik biotza ustela dut, baiñan, zuk ere ustel askua daukazu mingaiña.

INAXI: Nik esandakorik entzun nai ezpa'duzu, ba'zuazke nire albotik, bestela gogorrangoak entzun bearco dituzu-ta.

KALAMAX: Zure abo zikiñaren bildur naizela uste al-duzu? Bota, botatzeko duzuna.

INAXI: Eztizut ustelkeririk botako; bai ordea, ustelkeri guziak baiño geiago min egingo dizuna... Jakin ezazu: Joxe Migel bizi da eta Getari'n dago.

KALAMAX: ja, ja, ja! Nork kontatu dizu ergelkeri ori?

INAXI: Luixa'k, eta onek eztu ergelkeririk esaten.

KALAMAX: (*Txundituta.*) Luixa'k?

INAXI: (*Garaikor.*) Bai, Luixa'k.

KALAMAX: (*Amorratuta.*) Atso sorgin orrek.

INAXI: (*Sumi.*) Noiztik da atso sorgiña? Zure alde zebillenean aingeruen pare zenun eta orain...

KALAMAX: Esan dizut, Mutriku'n gora-bera aundiak izan dira bost illabete auetan eta ez da arritzeko len aingeru zena orain sorgin edo deabru izatea, (*Siniskaitz.*) Eta nork «piztu» du illobitik «zure» Joxe Migel?

INAXI: Ez al-duzu sinisten? Ainbat okerrago zuretzat. Zuk nirekin eztuzu itxaropen izpirik eta nik berarekin sekula baiño geiago. Gizajoa jakinberri da Agata ezkondu dela, engañatuta eta ia beartuta, bera il dela esanda gero. Aitortu, bear da Agata ta Joxe Migel'i egindakoa urdekeri bat besterik eztela, baiñan, nire biotz naigabetuak poz artzen du markes jaun-andreen ziraunkereri ontaz.

KALAMAX: Joxe Migel agertu delako zapuzten nauzu, beraz? Gaiñerakoan on niñuzuke.

INAXI: Zeu on? Putzura botatzeko izan ezik... Fantasioso alakua! (*Bijoa eta KALAMAXgeldi bedi.*)

IRUGARREN JARDUNALDIA

KALAMAX eta PERU JAUNA

PERU JAUNA: Zer zenduten orrelako ixkanbillan Inaxi ta biok?

KALAMAX: Oso arrotuta zegon Pertxal'en alabatxo pertxenta.

PERU JAUNA: Ura arrotuta eta eu pattalduta? Kalabazak eman al dizkik?

KALAMAX: Orrek niri kalabazak emanda, nik nai aña izango ditut gero're, baiñan orrek eztu izango nai dunik, berak ala uste ba'du ere.

PERU JAUNA: Orren gogokoa joan zen, zorigaitzez.

KALAMAX: Berak ezetz diño ba... Joxe Migel piztu egin omen da eta berriz ere arekin ezkontzeko ustetan edo... gogotan asi da.

PERU JAUNA: Joxe Migel piztu? Burutik egin al-zaio orri? Azken orduan lagundu zion apaizarekin neroni egon nintzan, il-agiria egin zun medikuarekin ere bai, Salamanca'raiño ortarakoxe joanda gezurrik ote zen ala ez jakiteko. Eskela ere, aundi askua jarri zuten Donostia'ko eta Salarnanca'ko egunerokotan.

KALAMAX: Nik ere, bere buru-berokeriren bat zela pentsatu nun aurrenean eta algaraka ekin nion. Baiñan, gero kezketan jarri miñun albistea nundik zetorren esatean.

PERU JAUNA: Nundik baiña?

KALAMAX: Alegia, Luixa'k esan omen zion eta sorgin orrek ba-daki zer esaten dun.

PERU JAUNA: (*Asaldatuta.*) Baiñan, esaidak nola esan ziken.

KALAMAX: Nola esango zidan ba? Joxe Migel bizirik dagola, Getari'ra eldu dela eta besterik gabe kukurruku joka asi da, Keleo'neko mutilla seguru omen dauka orainguan.

PERU JAUNA: Baiñan, nire senideak orrelako urdekeririk egin ote didate? Jaungoiko santua! Nola ez nitun nik begiak lenago zabaldu?

KALAMAX: Ez niri jaramon audirik egin, Peru jauna. Bearbada, neska ziztrin orren asmamenean sortutako buru-berokeriak besterik eztira.

PERU JAUNA: Ala izan dadilla, baiñan, ziara kezketan jarri nauzu oraintxe. Sendagille, apaiz eta denak erosiak ote zituzten ziraun oiek? Nola ez ote naiz nire senideen zapokeriaz lenago oartu? Bai, bai, zalantzik gabe dana antolatuta zeukaten. Joxe Migel'en eriotza zabaldu zuten bein bitartean berak nai zuten ezkontza moldatzeko. Ala're, ez berak nai zuketean maillakoa, baiñan, bai Joxe Migel'ekiko ezkontza galtzeko laingoa. Nik, txarkeri onen susmorik izan ba nu, etzidaten niri orrelako ziririk sartuko. Suge narrastarien antzo jokatu dute... Eta bitarte ontan nun egon da Joxe Migel?

KALAMAX: Nik al-dakit? Ondo lotuta eukiko zuten beñepein Agata ezkondu artean.

PERU JAUNA: Milla deabru! Ziraunkume oiek egin digute egitekoa! Nun da Luixa? Esaidazu, beragana joan nadin.

KALAMAX: Luixa? Ezkoba gaiñean jarrita bazterrak miatzen non bait. Sorgiña alakoa! Lurpetik ere ateratzen ditu albistek orrek! (*Bijoaz biak.*)

LAUGARREN JARDUNALDIA

ANTTON eta BILLOBATXOA

ANTTON: Eldu gaituzu, billobatxo, nire biotzari ain maitagarri zaion kai zahar ontaraiño.

BILLOBATXO: Aitona, zergatik maite duzu onenbeste gure kaia?

ANTTON: Nire izanaren oroimiñez ementxen asetzen naizelako iñun ez bezala, billobatxo.

BILLOBATXO: Aitona, eztizut ulertzen itz oiekin zer esan nai duzun.

ANTTON: Ez da erreza. Ni ere, noizpait, oso antziña, zu bezalako motiko txikia izan nintzan eta ez nitun ulertzen gizonen jardunak. Urteak erakutsiko dizute nire itzen esangura. Artean, jolastu zaitetz aiton zahar onen letaniai jaramonik egiteke, urteok baiño ederragorik nekez billatuko duzu-ta.

BILLOBATXO: Aitona, Atxukale'ko gaindegitik itxasoari begira sor eta lor gelditzen zeranean, zerbait esaten al-dizu belarrira?

ANTTON: Itxasoak? Esaten ote didan! Aurtzarotik asi ta zahartzaroraiño nire bizi guziaren berri maten dit itz gutxitan. Nolako ixilpeko gozotan aritzen geran itxaso ta biok!

BILLOBATXO: Bai ote? Eta zer esaten diozute alkarri?

ANTTON: Orra, parraskiro zertzuk esaten dizkioten: «Antton nauk, Keleo'neko zaharra, bizibearrak eraginda ire sabeletik ainbat ume ostutakoa eta sarritan nirekin gaitzo ta zital izan ba'aiz ere, ire beltzalditan ni irentsimiñez, maite aut Itxaso, arraiak

ez beste, maite aut mariñel gose orruka ari aizen Itxaso ikaragarria, estuasunik gorrienakin batean zor baitiat iri nire bizitzako laurogei urte aunditan jandako eguneroko ogia. Iri eskerrak seme-alaba eder galantak azi nizkikan eta auek, iri bearrik ere, ekarri zizkidatek nire zahartzaroaren pozkarri billobatxo zoragarriok. (*Au esanaz maiteki igurtzi beza elboan daukana.*) Mutil koskortu orduko, txalopa aieneko ire erraietan murgildu nindukan eta geroztik, nirebiziko ordurik gozoenak eta samiñenak ere bai, ire altzoan egin dizkiat. Orain, zaharreriak jota, ire sabeleko gazi-gozoak xurgatzeko deuseztuta gelditu naizelarik, Mutriku'ko leiutil zoragarri ontara natorkik, aspaldiko lagun zahar ori, agur gozo bat egitera.

BILLOBATXO: (*Aitonari begira lilluraturik.*) Egundaiño ez nizun entzun orrelako gauza politik esaten, aitona. Eta itxasoak ulertzen al-dizu guztiori?

ANTTON: Bai, billobatxo.

BILLOBATXO: Euskeraz ba'ote daki ba?

ANTTON: Jakingo eztu ba? Norekin itz egin ote du geiago Kantauri itxasoak joandaneke bi edo iru milla urtetan euskaldunakin baiño.

BILLOBATXO: Eta itxasoak zer esaten dizu zuri, aitona?

ANTTON: Zer esaten didan? Orra, nirekiko oi dun biotz-izketa: «Nik ere maite aut, Keleoneko Antton, euskaldun arrantzale zaharra, maite aut nire arraitxoan pare. Nekez eta izerdiz eskuratu diat nire erraietako altxorra eta bide-lapur antzo nire umetxoak ostutzero etortzen intzalarik, zenbat aldiz ez ote aut nire atzaparrez estutu ire lapurretaren kontu zorrotza eskatuz? Ala're, irekin biotz-bera eta errukiorra izan nauk. Ire bizia nire esku eukirik, nire barrutira lapurretara etorri aizen orotan ire kupida izan diat, bai-ba'nekikan zenbat ume itukan legorrean niri ostutako janarizai. Eta bidezkoa ukan Jainko-legez nire umien bizi-eskeintza gizadia azi ta zabaldu dadin aldi amairaño.»

BILLOBATXO: Aitona, Fermin jaunak ere eztitu orrelako gauza politik esaten pulpitutik.

ANTTON: Biotzari izketan uzten ba'zaio, bururik argienak baiño gauza ederragoak esaten ditu sarritan.

BILLOBATXO: Aitona, Kristo Tranpako'ri Aitagurea esatera joan bearko dugu aurki.

ANTTON: Bai, kuttuna, kai zahar oni azken agurra eginda joango gaituzu.

BILLOBATXO: Aitona, Kristo'ren oiñetan dagozen bi doneak nork lepotu zitun ba al-dakizu?

ANTTON: Orain berrogeitamar urtetsu gertatu zen. Bearrik, Kristo gurutz-iltzatuari eraso zion arrantzalea etzen Mutrikuarra, Debarra baizik. Orain, Deba'n ezta itxasora arrantzalerik ertetzen, baiñan, nire gaztetan debarrak Mutriku'ko txalopetan ibiltzen ziran. Au dala-ta, itxasorako joan-etorria Mutriku'tik egiten zuten. Beiñola, bixigu-garaian, ekaitz aundi batek erasota arribadan sartu ziran arraiñik ekartzeke. Itxasotik etorri-berri zen Debatarrak batek, Tranpa-kalean gora zijoalarik, Gurutz-iltzatuaren irudi aurrera eldu zanean, ikaragarriko biraua jaurtiaz, jo zun esku batean zeraman abriñarekin eta Kristo'ren oiñetako bi doneak lepotu zitun. Arrantzale zital ori, ordea, bere egitekoaren ondoren zerraldo erori zen bizi gabe.

BILLOBATXO: Eta zuk ikusi al-zendun nola il zen?

ANTTON: Egia esan, nik ez nun ikusi, baiñan oraindik ere bizi dira Mutriku'n eriotz orren testigu diranak.

BILLOBATXO: Debarrak gaiztuak al-dira, aitona?

ANTTON: Otsokoak nun-nai dabiltz, Ondarru'n, Deba'n eta Mutriku'n. Zure adiskide tartean arkituko dituzu, apika. Erne ibilli, beraz.

BOSGARREN JARDUNALDIA

PERTXAL, KELEO eta lengoak

KELEO: Kaixo, aita.

PERTXAL: Jainkoa'k arratsaldeon, Antton.

ANTTON: Bai zuei ere, «gazteak».

KELEO: Aita zaitut eta «gazte» naizen kontua egin dezagun.

ANTTON: Itxasora ateratzeko gai den artean gizonak etziok bere buruari zahar iritzi bear, seme.

PERTXAL: Ortaz, oraindik gazte ametsetan bizi bearco diagu urte batzutan, Keleo.

KELEO: Bearco (*ANTTON'en besotik den semea ar beza itz oek esanaz*), gure umeok aurrera aterako ba'ditugu.

ANTTON: Gaur arratsean bixigutara erden bear al-duzute?

KELEO: Gu baiezkoan gera, baiñan ba-dira tartean ateratzeko beldur diranak.

ANTTON: Itxasoak bekoki beltza zeukak Asturias aldetik eta ekaitzak jotzen ba'dik, larri asko ibilli bear duzute.

PERTXAL: Nire usteen, pasako zaio beltzaldia. Itxura txarragoarekin ere atera izan gera eta onik etxeratu.

KELEO: Aita, aur eder oegatik ezpa'litz lasai geldituko giñake etxean, baiñan zortzi umien urdaillak bete bear ditun aita batek orrelako nagikeririk onetsi al-dezake?

ANTTON: Bai, seme, ba-zekiat ik bezin ongi kezka orren berri, baiñan, ausarkeri bat dala-ta, zortzi umezurtz urtea obe al-derizkiok?

KELEO: Aita, nik umeok azitzen ditudan bezala, azi giñuzun zuk noizpait. Zure kezka bakarra guri jatekoa ta jaztekoa alik oparoena ematea izan zen eta itxaso zitalari etzenion sekula bekoki beltzik ikusten guri eguneroko ogia ekartzeko garaia eltzen zitzaizunean.

ANTTON: Egia duk, seme, baiña, ori dala-ta, makiñabat aldiz egon nauk itxasoaren atzaparretan ito-ez ito.

KELEO: Eta gu artean zure kezketan, aita, zure alde otoizka eta bein baiño geiagotan Nazarena atera eta Iñua eta Salbia kantatu ere bai txalopakoak galdu ez zintezten.

PERTXAL: Gurean berdin izan oi zen, Antton. Arrantzaleok belaunez-belaun ixtori berbera berritzen ari gaituzu.

ANTTON: (*Bere billobatxoa aitari kenduz eta laztanduz.*) Baiñan, billobatxo maitagarri au umezurtz gerta ba'ledi, nork emanen lioke jatena, nork beteko lioke bere aitaren utsunea?

KELEO: Jaungoikoa'k eztitu bere umeak bakarrik uzten, aita. Zu itxasoan galdu ba'zindugun gure umetan, nolabait ere aterako giñan aurrera, naiz-ta estuasun gorriak ikusi. Baiñan, gaur bezalako egualdiakin aterako ezpa'giña, urte erdian legorrean bearco genuke eguneroko jatenari oratu eziñik.

ANTTON: Arrazoi duk, seme; jarrai akiok nire erakuspideari, nik ere nire aurrekotatik baitiat jaso jokabide ori. Esana zego: Arrantzaleak bere biziaren opariarekin irabazi bearco dik eguneroko ogi zatia.

PERTXAL: Ogi samiña irabazteko, baiñan gozoa jateko.

ANTTON: Bai, Pertxal, Jaungoikoa'ren bedeinkapenik etzaio faltako arrantzaleak jaten dun ogiari.

KELEO: Kofradira joan bearco diagu, Pertxal, arrai subasta oraintxen duk eta.

ANTTON: Legatzak zenbat egin dik bart?

PERTXAL: Erriala kiloko.

ANTTON: Besterik ez?

KELEO: Etzuten geiago ematen. Baiñan prezio makurgarri ortan eman baiño naiago izan genun, etxekoai diosalik egin gabe, Zumai'ra abantian joan gure arrai ta guzi, an sal-neurri ohea egiten baitu eskuarki.

PERTXAL: Eta pagatu ere, emen alako bi pagatu ziguten Zumaia'n. Kiloko errialbi.

KELEO: Mutriku'ko arrai-saltzalleak etzuten orrelakorik pentsatzen eta legatzik gabe gelditu ziran.

PERTXAL: Urrengoan eztira lo egongo. Gure txalupen brankak Zumai'ra zuzendu baiño len, ordainduko dute bidezkoa dena.

ANTTON: Ondo egin zenduten. Gantza ateratzalleari arraia eskuratu baiño obe duk itxasora botatzia... Subastara zuazte, beraz?

KELEO: Bai, asmo ortan atera gaituzu etxetik.

ANTTON: Ni, oi bezala Tranpa-kale'ra nijoakizute mutikoarekin. An, Kristo irainduaren aurrean belaunikatzen gaituzu biok eta Aitagure bat esaten diogu, berari eraso zion mariñel zitalaz kupida izateko.

PERTXAL: Etzikan ba, biraoti ark, kupida aundirik merezi.

ANTroN: Ez guk ere, Pertxal, Kristo'ri ainbestetan egin baitiogu arrika munduko auzi zorotan burua galdurik ibilli geranean eta ala're, nireak egin dula oartzen naizenetan kupida eskatzen diot gure Jaungoikoa'ri. Kupida niretzat eta kupida Tranpa-kale'ko biraolari doakabearentzat. (*Bijoaz denak.*)

OIALA

SEIGARREN JARDUNALDIA

LUIXA eta AGATA

(Agertokia lengua berbera. LUIXA'k traiñak konponduz diardu lurrean exerita:Lengo gertokizunetatik amabostaldi bat igaro da gutxi gora bera. Neguak tarteka opa oi dizkigun egun eder bateko goizaldia.)

AGATA: (*Eskerreko aldetik sartuz.*) Arian, Luixa?

LUIXA: (*Bere lanean burua jaso gabe.*) Eskuak arian eta soiña egonien. (*Burua jasoaz.*) A! Baiño zu al-zera? Zer zabiltz emengo aldi?

AGATA: Orra ba; negugiro eder oni omen egiñaz ttapa-ttapa kaieratu naiz.

LUIXA: Ederki egin duzu. Negu ziztrin onek egin digun oparirik ederrena da. Nork esan? Atzoko euri jasak etziran txantxetakoak izan eta itxasoa ere arrotu xamarra ibilli zen... Gure mariñelak etzuten gaugiro ona izango.

AGATA: Luixa, zurekin itz egin nai nuke eta uste dut etzugula au baiño abagune oberik billatuko bakarka jarduteko.

LUIXA: Egia diozu, emen ez digu iñork entzuten. Zer nai zenuke?

AGATA: Aitzea dut zuk ba-dakizula Joxe Migel nun bizi den.

LUIXA: Bai, ba-dakit. Baiñan, zertarako nai duzu jakin?

AGATA: (*Asperenka.*) Berekin egon bear dut, nire zorigaitza jakiñerazteko, nire biotzari arnas emateko.

LUIXA: Esango nizuke, baiñan obeto duzu ezjakiñean bizi.

AGATA: Nola nai duzu ezjakiñean bizitzea, Luixa? Eztuzu ikusten nire jokabidea zuritzea zor diotala?

LUIXA: Nik esan nion zeatz-meatz zurekin egin zuten guztia.

AGATA: Ala're ezta aski... Bere biotzaren berotasuna sentitzen ezpa'dut nirearen kontsolagarri, ilko naiz, Luixa...

LUIXA: Ori etzaizu zillegi, Agata. Ezkondu ziñan eta zure senarrari zor diozu zure biotzak senti dun guztia.

AGATA: Nire biotza lertuta dago eta oñazea dut bizilagun bakar... Luixa, nork iruzur egin dit niri ain toleski ta makurki? Guraso izenik merezi al-dute... (*Negarretan lertu bedi eta LUIXA'k maiteki kontsda beza.*)

LUIXA: Agata, zuzpertzute zaitetz... Ba-dakizu zure biotz eriarri orrelako naigabeak kaltegarri zaizkiona.

AGATA: Nire. biotzak gizon bat bakarrik maite du eta aura kendu egin didate. Esaidazu nun den Joxe Migel, beragana joan nadin...

LUIXA: Ez, Agata, etzaizu zillegi.

AGATA: Nirekin egin dutena zapokeri bat da, Luixa. Nik eztut nire senarra maite, ezin jasan dut nire alboan, beraganako nazkak eta iguiñak itotzen nau... Eta orain, Joxe Migel bizi dela jakiñik nola nai duzu nire senarrarengana itzultzea? Otoi, esaidazu Joxe Migel nun bizi den bere altzoan nire naigabea ustuz dezadan. (*Negarretan lertu bedi.*)

LUIXA: (*AGATA laztanduz.*) Irugarrenez desaituz, Agata: etzaizu zillegi. Jaungoikoa'k gurutzte astun au egonarriz eramateko eskatzen dizu.

AGATA: Ez, ezin dut eraman eta eztut eramanen. Betorkit Joxe Migel edo betorkit eriotza, baiñan, egun bat geiago ez nire senarraren alboan...

LUIXA: (*Begiak zerurantz jasota.*) Jauna, erruki zakizkio zure mirabe oni eta egizu zure argi dirdaitsua sar dadilla bere biotzean barrena. (*Bekokia ikutuz.*) Gaixoa! Kopeta izerdi otzetan dauka.

AGATA: Luixa, eztakizu zenbat sufritu dutan Joxe Migel ezagutu ezkerro. Eztakit Jaungoiko Gure Jaunak zertako jarri zidan bidean..

LUIXA: Jaungoikoa'ren asmoak ain dira sakon eta ulerkaitzak negar erri onetan bizi geranontzat... Baiñan, bere bide ezagugaitzetan ezarri dizkigu mugarri batzuk itxumustuan saiestuta amilpean labaindu ez gaitezen. Zuk eztakizu bere bide ta asmoen berri, baiñan, saiestu ez zaitezen mugarri auxen jarri dizu: etzazu opa zurea ezten gizona. Aiena ezazu bada zure gogamenetik Joxe Migel'en oroitza eta alegin egizu zure senarraganako iguin ori zapuzten.

AGATA: Eriotza errezago onetsiko nuke guztiori baiño.

LUIXA: Guztiori eta beste zerbait geiago eskatzen dizu Jaungoikoa'k Ainbeste belzkeri egin dizutenai barka zaiezula.

AGATA: Alegiñak eginen ditut, Luixa. Gaur-gaurkoz ezin dizut besterik agindu.

LUIXA: (*Muin emanaz.*) Agata, ona zera, iñor onik ba'da munduan. Eztakizu zenbat maite zaitugun arrantzaleok.

AGATA: Bai, arrantzaleak maite naute eta nik ere maite ditut arrantzaleak, iñoiz Jesus'ek maitatu eta aukeratu izan zitun bezala, bai-baitzekin Ark biotz xaloak nun arki... Nik ere, orrelaxe idoro nun bat on askua, biotz sutsu eta tolesik gabea...

LUIXA: Baiñan, orain, Jesus berberak eskatzen dizu emankizunik aundiena. Bere maitasunarren Joxe Migel'enari uko egiteko.

AGATA: Ulertzen dizut, Luixa. Ez nadin erten Jaungoikoa'k bere bide ezkutuai ezarritako mugarritatik. Baiñan. eztakit kemenik izango dutan emankizun au burutzeko, ain baitira latzak eta neketsuak guretzat Jaungoikoa'ren bideak!

ZAZPIGARREN JARDUNALDIA

Lengoak eta PERTXAL

PERTXAL: (*Urduri ta artega.*) Beltza gertatu da itxasoan gaur arratsean. Tantorta'ko kalan alazian genbiltzala, jo dugu gurearen brankaz Getari'ko txalopa bat saietsez eta killaz gora jarri dugu. Itoak iru izan dira. Oraintxen legorreratu ditugu gorputzak.

LUIXA: Ene, Jaungoikoa ! Eta noiz gertatu da zorigaitza?

PERTXAL: Goizeko lauak izango ziren gutxi gora bera. Itxasoa arro xamarra zegon eta gaua txit illuna. Orregatik galdu zaizkigu iru mariñelok, deus ezpaitzen ikusten. Itoak Getari'ko txalupakoak dira, baiñan, iruretan bat Mutrikuarra da, Joxe Migel Keleo'nekua.

AGATA: Joxe Migel? Jaungoiko maitea! (*Zerurantz begira jarrita.*) Nik galdu zitut Joxe Migel nire jokabide makurraz! (*PERTXAL'i.*) Baiñan, esaidazu, nun dago bere gorputza?

PERTXAL: Emendik bixtan daukazu. Ikusten al-dituzu berrogeitamar bat metrora arrantzale aldra aren alboar, iru gorputz burutik estalirik? Beroiek dituzu itotakoak.

AGATA: (*Zeruari zin egiñaz.*) Joxe Migel, zin dagizut Jaungoikoa'ren aurrean zuri egindako agintza eztutala urratu iruzurbidez baizik. (*Itzok esanaz, bijoa antxintxika JOSE MIGEL'en gorputza daukaten lekuraiño.*)

LUIXA: Neska gaixoa! Jaungoikoa'k bakarrik daki zelako kalbarioa daraman Joxe Migel'ekin maitemindu zen ezkerroz.

PERTXAL: (*Aztoratuta.*) Kankallu aundi bat izan naun. Ez niken bere aurrean Joxe Migel'en izenik aipatu bear.

LUIXA: Zuhurrago ukean, noski, baiñan onezkero eztik zuzenbiderik. Alabearra duk gero, Getari'ko txalupan Joxe Migel suertatzea. Ba-nekiñan Getari'ra elduberri zana eta andik arrantzan asteko asmotan zebillena, baiñan nork esan bere lenengo itxasoratzean illotzik ekarri bear zutenik Mutriku'ra?

PERTXAL: Gauaren beltzak galdu dizkin gizonok. Gaiñerakoan, zerbait ikusiko ba'litz... Gaua madarikatua! Ordubeteren buruan, ziarozko itxumustuan, arnazapi gizon atera genizkiñan bizirik, baiñan, gañerako irurak ezin idoro iñolaz ere. Nunbait,

itxasoak aparte xamar eraman zizkiñan eta beren ojuri ezin entzun. Noraezean ibiltzeak, berriz, bere arriskua zeukan, urreratu bearrean erabat aldendu baiditeke eta orregatik eguna argitzen asi arte zai egotea erabaki geniñan. Gaur goizean atxeman dizkiñagu iru gizonak neke aundirik gabe, baiñan, zorigaitzez, gorputz besterik ez itunan...

LUIXA: Joxe Migel gizajoa! Orra, beltzak ikusteko jaiotako mutilla! Mundu ontako neke-samiñen orde z Jaungoikoa'k emango al zion bestean Betiko Atsedean ezta.

PERTXAL: Ala biz... Baiñan, barkatu, Luixa: joan bear diñat antxintxika apaizari ots egitera. (*Abia bedi.*)

LUIXA: Bai, ua aguro. Ni bitartean, lanak utzita gorputzak ikustera joango naun. Itxaso madarikatua! Ogi puxkabaten truk zenbat mixerri eta zenbat oñaze dakarkiguk gure etxetara! (*Erten bedi illotzak gozen alderdira.*)

ZORTZIGARREN JARDUNALDIA

PERU JAUNA eta ANTTON

Abagune batez, PERU JAUNA ta ANTTON sartu arte utsik geldi bedi antzeztokia. Auek, gertakizunen berri jakiteke sar bitez arrantzako tresnak eskutan dituztela itxasoratzeko ustean. Izketan diardutela, bat-batean oar bitez gertatzen'denaz.

PERU JAUNA: Itxasoa bare eta eder dago. Atzo arratsean ez nukean esango gaur goizean arrantzara atera bear genunik. Baiñan, abendu beltz onek ustekabeen eskeiñi digun giro eder au ezta galtzen uztekoa.

ANTTON: Ez orixe; nire zahartzaroko jolas bakarra auxen dut eta joandaneke amostaldi ontan ezta itxasoratzeko girorik egin. Orregatik, nire billa etorri zeranean itxasora erten nai nun galdezka, umeak baiño pozago jarri naiz.

PERU JAUNA: Etsituta nengon aspalditxoan arrantzara ertetzeko girorik ez ote zun egin bear. Ain egualdi kaxkarrak egin baiditu bolara ontan.

ANTTON: Bai, alaxen da, baiñan, negualdiko ateraldiok, tarteka egin oi diranez, askozaz gustagarriagoak izan oi dira. Eguneroko jolasak aspertu egin oi du eta noizik beingoak zoratu.

PERU JAUNA: Ori ala denik ezin uka, baiñan kostakumeok itxas gezalak bizi gaitu eta au kendu ezkerre arraiñak legorrean bezala itotzen gera. Baiñan gaurkoa gurea da ta ase gaitzen itxasoaz urrengo txandaraiño.

ANTTON: Bai, goazen lenbailen, potiña zai daukagu-ta. (*Abia bitez.*)

PERU JAUNA: (*Bat batean geldituz.*) Baiñan, Antton, ori da jendez kai muturrean.

ANTTON: Izan ere, zerbait gertatu ote da?

PERU JAUNA: Itxura ala da. Gizonezkoak txapela kenduta dute. Nunbait, errezuan diardute.

ANTTON: Itxasoan zerbait gertatu da, antza. Itoak edo dira.

PERU JAUNA: Aztoratuta dagozela dirudi... Larrikara nabaitzen da euren arpegitan... Otsak, ojuak, gizonak negar zotinka... Baiñan, Jaungoiko maitea, zer gertatu ote da?

ANTTON: Lagun nazazu, Pello, olakotan, zutik irauteko indarrak uts egiten baitit. (*Lagun bezaio.*) Ainbestekoa da, izan ere, nire zaharrerri ontan itxasoan itoak egiten didaten zirrara.

PERU JAUNA: Atxiki niri, Antton, belauñak uts egin baiño len. (*Gizaldrari begira.*) Gizonezkoen artean emakumeak ere ba-dira. Oker ezpa'naiz, onera begira dagon ori Luixa da. Orain ere saltsa billatu du emakume orrek. Nola moldatzen ote da gertakizun guzietan lenengo jakille bera izateko? Sorgiña esan zion arrek, arrazoi pixkabat ez ote du berarekin?

ANTTON: Urbil gaitzen gizatalderaiño, Pello. Eriotza anai bekigu gure billa datorkigunerako.

PERU JAUNA: Bai, urbil gakizkion Eriotzari gizonki, bere ostean Bizi berri bat ba-delako usteak sendotuta. Ken ditzagun txapelak eta erreza dezagun «Aita Gure» bat

itxasoak irentsiak Bizi ori goza dezaten... (*Aita Gurea errezaka bijoaz eta oiala jetxi bedi.*)

BEDERATZIGARREN JARDUNALDIA

AGATA bakarrik

(Oiala jasotzean lengo iruditegi berbera ager bedi, baiñan, illunik. Bazter batean exerita bego AGATA, burua beso tartean kokatuta, burukizun astun eta mingotsaz ito learrrik. JOXE MIGEL galdu ezkerro eztu atsedean pakerik. Gorputza sukar izugarri baten mende dauka buruan darabilzkin pentsammentu latzak bertsolariaren boz ezkutu batek agertuko ditu Iturrino'ren ahapaldiok kantari bastidore artetik.)

Markes baten alaba
interesatua,
mariñeruarekin
enamoratua,
dieskubritu gaberik
bere sekretua,
amoriyua zeukan
barrena sartua.

Zer esaten didazu
Agata'k itz ori
tentatzen aizerala
trazak ba-dirudi,
etzait zure gradurik
tokatutzen neri,
ez buriarikan egin
mar iñeruari.

Iduki dezakezu
ongi sinistua
aspaldian nengola
zutzaz gustatua,
etzaitut nik utziko
desanparatua,
ala egiten dizut
gaur juramentua.

AGATA: (*Bat batean zutiturik eta eskuak burura eramanaz, zoratuta lez oju egin beza.*)Aski, Jauna, aski...!

(AGATA'k zoratubear ontan diraun artean agertokian noraezean ibilki bertsolariak beste ahapaldi au kanta besa.)

Gaba pasatu eta
urrengo goizian
entierrua zuen
bigarren klasian,
markesaren alaba

guzien atzian,
zer pena izango zen
aren biotzian!

*(Bertsolariak kantari bukatu ordukoxe, AGATA zerraldo erortzen
da. Oiala azkarki jatxi bedi.)*

AZKENA

Donosti'n, Azaroak 17, 1956
ETXAIDE'TAR JON